

ATV.
158

GAUZEN · IKASKIZUNAK UMIENTZAKO

LERTXUNDI TA BAZTARİKA'TAR

JON IMANOL

KALASANZ'DARETAKO ABAK EGIÑA



BILBO'N 1925

AT 152

THE UNIVERSITY OF CHICAGO

ORIENTAL

LIBRARY

CHICAGO, ILL.

GAUZEN IKASKIZUNAK

IMIENTZAKO

SETRUNDI TA BERTAGIATAD

IKUSI IKASIA

ADARRETA-ORRI 2001 ORRI

GAUZEN IKASKIZUNAK

IKUSI TA IKASI

ORUEN IRASIZUNAR

IRUEN TA 1491

M - 3322
R - 177

A.T.U.
158



GAUZEN IKASKIZUNAK

UMIENTZAKO

LERTXUNDI TA BAZTARİKA'TAR
JON IMANOL

KALASANZ'DAĖETAKO ABAK EGIÑA

YANBIBIAO MAO GABER

ETA

*Durango'n eta 1921 gaŕen urteko Agoŕean
Euskaltzaindiak izan zun lenbiziko Idazti-
batzaldian saritua*



1925
EDITORIAL VASCA
Banco de España, 3
BILBAO



КАЗАНСКИЙ УНИВЕРСИТЕТ

УНИВЕРСИТЕТ

КАЗАНСКИЙ УНИВЕРСИТЕТ

КАЗАНСКИЙ УНИВЕРСИТЕТ

КАЗАНСКИЙ УНИВЕРСИТЕТ

1917

BEAR DAN BAIMENAZ

Библиотечный фонд
Казанского университета
создан в 1804 году



1917
КАЗАНСКИЙ УНИВЕРСИТЕТ
КАЗАНСКИЙ УНИВЕРСИТЕТ

Azkue ta Zabala-Antxleta'tar Joseba
Tolosa'ko Sendagile Jaunari.

ESKEINTZA

Nere Euskal-Iztiak, argiratzean, ire aita uanaren (G. B.) izena zeramakiken: orain argiratzer a niaken idaztitxoak ire izen ospetsua ba-zeramakik, ez dek iñortxo Tolosa'n arituko: ire aita uana asko maite ba-nian, i geyago maite bear autela, gure eñitar guztiak zekitek eta.

I izan aiz neretzat txikitandiko laguna: ikastol-etan eta ire etxean alkarëkin ikasten ibili izan gaituk gure aurtzaroan: emendik aldendu ta luzaroan uruti bizi ta gero, beriz Tolosa'ra etortzean, i arkitu iñu-tan beti bezela atsegin da maitetsu itzala: eta gaur, gaitzak jo ta makal samar añen, oraindik bizi ba-nauk, ire maitetasun eta zaintze jakintsu bidez, bizirik natxebilek.

¡Jaunak, bear eta nik nai ala, ordaindu dezaizki-kela zor dizkiaten laguntzak!

Nik, lekaidea izanez, ludi ontako ontasunetan gutxi ordaindu nezakikek; bañan iri diaten maite-tasun eskertsua txit aundia dek, eta maitetasun oñen adieraz gaia besterik ez dek idaztitxo onen eskeintza.

*Ez dek idazti au aundi ta bikaña izango, bañan
bai asmo onak zekarzkikena: ¿Ez aiz i Euskal-
lkastolen irazle tarteko jafi?*

*Bai noski, ta euskera maitea zaindu ta zabal-
tzeko asmoz betea. Alasen dek eta ¡bejon-deikelal*

*Asmo oyek berak dizkik idaztitxo onen egileak,
eta oregatik idazti au atsegin izango zaik.*


Ori naiez zegok ire lagun zar

Lertxundi ta Baztarika'tar Jon Imanol.

Kalasan' dafetako Abak.



Jon Deunetako gau alala



SARIRIK ATSEGIN ETA AUNDIENA

DONOSTIKO Ikastetxe ospetsu batean asterketak zirala ta, mutil sail polit bat bildu zan, eta beren guraso ta esagunen aurrean irakaslearen galdera ugariai zintzo ta egoki erantzunez, bana banaka ta taldietan, mutil bizkor ayek beren azkartasun eta ikastaroan ondo lan eginez, asko ikasi zutela adirazi zuten.

Ta jakiña! lkasleak pozik, irakaslea geyago, gurasoak arosko, ama batzuek malko gosoak zerizkiela iriparez eta guztiak atsegin zeudela, sari ederak banakatu ondoren, etxeetara juteko gertu ziran batzarakoak... bañan eskertsuak ziranez, aldendu baño lenago irakaslearenganatu, ta guraso geyenak «¡bejondeizula! -ka», beren mutilai asko erakutsi zielako irakasleari esker ugariak eman zizkioten.

Ontan irakaslariak, bere asmoak agertzeko gaia zetorkiola igaririk, gurasoai esan zien:

—Andre agurgari ta Jaun altsuak, zuen semeak asko ikasi dutelakoan pozik zaudete noski; ni ere bai: mutil oyek ikasi lezazteken beñi guztiak ba-dakizkite; bañan begiz ikusten danak geiago irauten bai-du mutilen oroimenetan eta edonun zerbait ikusteak elieke gaitzik egingo... ¿Ondo deritzazute?

—¡Bai! bañan... (zioten gurasoak) mutilak ezin dira bakarik ibili, ta gu, geren bearez ezin gñezke iñora jua.

—Bai, badakit ori; ala ere, bateonbatek, mutil oyek, beren zaindari dala, eraman al-ba'litu eta bidez, ikusten dutena adiraziko balie...

—Ori bera, orisen; ta bateonbat ori zeorek izan nai ba'zendu...

—Ez dago beste zer esan bearik; geyegi maite ditut mutil atsegin oyek, alako eginkizunetan laguntzik gabe usteko: ¿zenbat eta noiz eraman nezazke?

—Biar bertan jakingo dezu zenbatek jun nai dun: noiz ta nora dijuazten zuk aginduko dezu. Gañera, bear dan dirua, dagokizun diru etxean jariko dizugu, ta. ¡Eskerik asko!

Onela gauzak antolatuko ziralakoan, alkar agur-agurtuaz banakatu ziran... irakasle ona, biotzez samurtua; gurasoak, pozik eta eskertsu; mutilak beñiz, algaraz ta txaloka «¡gora, irakasle Jauna!» geienak eta «¡gora, gu!» batzuek ziofela.

Ortaz irakasleak, bere amonek agertzeko gata...

—Añate arguraz ta...

gaitik eringo... Qñdo derizkete?

PASAI'TIK BILBO'RA

ONTZIRATZEAN

GARAGAÑILEKO 26 gañen egun goizean, Pasai zabaleko kaian bildu ziran gure mutiletakoko batzuek, beren guraso ta guzti. ¿Zenbat? Ez nai izan zuten guztiak: alako ibiltaldi luze baterako diru asko bear, eta guraso batzuentzat etzegon ainbeste ateratzeko biderik. Ala ere, 25 bildu ziran.

Lenagotik an zegon Irakasle Jauna, ontzi baten jabearekin itzegiten: ontzi-jabe-au, mutiletakoko baten osaba zan eta oien asmoak jakitean eta Bilbo'ra ontzia zama bila bialdu bear bear zun eskero, mutil talde ta beraren zaia ordañik gabe ematera eskeñi zan. ¡Esan da egin, guretzat berdin!

Juten asteke garaia zala ontzikoak adirazi zute-nean, len marmarka zeudenak isildu ziran: ¿zergatik ote? ¿Itxasoari bildur ziofelako nünbait? Ez noski; euskaldunak itxasgizon bulartsuak dira ta txikitandik dakite nolakoa dan. Ba-zekiten gañera guraso aiek, etzirala beren semeak Ameriketaraño juango... ta ala, ta guztiz, lañi samar zeuden: gogor egiten bai-zaie noski gurasoai semeengandik aldentzea ta oregatik angò malko, laztandu bear, musu dunbatsu ta onu ugariak.

«Arduraz ibili gero, e? ene kutuna».

«Irakasle Jaunari, gurasoai bezela, zintzo men-
egin, e?»

«Lagunengandik ez inoiz aldendu, galdu etzai-
tezen».

«Jantziak zikindu gabe, beti txukun ibili, e?»

«Noiz, nola ta zergatik soñekoz aldatu ba-dakizu?»

Onu oiek eta beste geiago aitzen ziran, mutilak
ontzi maletara eltzen ziran bitartean; ta zenbat itxoin
bear izan zuten goikoak, beko ogei ta bost mutilak
igo arte! «Utziozu» aitak, «jene kutuna!» amak, eta
«etoñi arte» semeak ziotela, buruka gogorëan itxurez,
senarëak emazteari besotik eltzen zion; amak semea
laxtantzun zun, eta semea, igesi naiez, urduri zegon,
alako batean lasterka igotzen zala!

¡Noizbaitëan igo ziran mutilak! Itxasgizonak on-
tziko kate ta elpideak jaso zituzten eta dardarka ontzia
ibiltzen asi zan...

—¿Zer dezute, mutilak (zien irakasleak) ain lafi ta
isilik egoteko?


—Guk ezer ez, Jauna (zioten mutilak); bañan be-
gira zazu ta ikusi gure amak negarëz daudela ta...

—Egia diozute, ene kutunak: ama guztien bizia,
maitetasun utsa bai-dä, ta zuen laritasunak beren
nekeak arinduko dituzte. ¡Agurtu itzazutel!

Eta mutilak, eskuz lenbizi, ta eskuzapiz geroago,
beren ama ta aitak agurtuaz, ontziak al zun ala,
aldendu ziran itxas zabaleko bide estura sartu arte.



Elkano'tar Sebasten Jauna Kadiz'era iristean



ITXASOAN

PASAITIK irten da gero, itxas uintsura sartzerakoan ziran isriluak: ur ibilkoren indaréz ontzia okertzen asi zan; bein buruz, urangoan atzeko alde, orain eskubira, gero ezkerera; eta mutilak, ezin txutik egonez lenbizi, ta ezin ibiliaz gero, erdi txorabiratu eta bildurtu ziran, goragaletu ere bai batzuek, eta Jaungoikoak dakizkin egiñalak bear izan zituzten itxasgizon eta irakasleak mutil aiek lasaitzeko.

Donosti'ko auréan zebiltzanerako, guztiz ez arén, zerbait lasaitu ziran mutilak eta irakaslearen ondorean eta zama-zulo baten estalki gañeko koskan eserita taango ertzari ondo elduak jardun zuten.

Ontan irakasleak galdetu zien:

—¿Nik esan bezela Mesa edo Jaupa entzun aldezute?

—Bai, Jauna; ta Jaungoikoari laguntza eskatu diogu.

—Ondo egiña, kutunak: orise bera egin bear luteke Kristotar guztiak beren lan asieretan: Jaungoikoa bai-da gure Egile altsua; Beraren eskuetan dago gure bizia, Berak laguntzen digun bitartean ondo gabiltz; bañan Beraren laguntzik gabe ezin ondo ibili giñezke.

—¡Ta bai benetan Jaunari laguntza eskatu diogula itxasora ateratzekoan!

—Oñela beti ta arduratsu otoitz egin bear zenduke, Patxi.

—Bai, bañan esturasun gogoñean arkitu bear ain zintzo otoitz egiteko...

—Egia da, Patxi; luñean bizi geranok, ez degu galbide askorik izaten ustez, eta oñegatik ez gera biotzez maiz Jaunarenganatzen; bañan ongi oldoztuko bagendu, bestela ibiliko giñake.

—¿Ustez diozu? ta ¿noiz galbideetan arkitu giñezke luñean?

—Bizia galdu beañean ez det esan nai maiz arkitzengerala; bañan biotza kutsutzeko eran uste dezuten baño maizago ta Frantziko Bakaldun zan Koldobika Deunari bere amak zionez, obe zaigu bizia galtzea, oben lañi bat bakari egitea baño.

—Ori batzuetan entzun izan dizugu eta ala dala dakit; onela, itxasgizonak besteak baño otoitz arduratsugoak dagizkíte noski?

—Bai, Patxi, bai: itxas nintsuan eta intxaur-estalki erdi arin batean ikustea besterik ez dago, gizonak bere aultasuna ezagutu ta Jaunari bear ala laguntza eskatzeko. ¿Ez al'dakizu Elkano'tar Sebasten euskaldun ospetsuak Kadiz'en egin zuna?

—Ludi guztia, borobilá zala ta, alde batetik bestera iragan zula bai; bañan Kadiz'en egin zuna, ez.

—Elkano'k, bada, bere ibiltaldi luze bitartean, neke ta naigabe izugaríetan arkitu zan, eta Jaunari, oñutzik eta kátez betea Kadiz'eko Eliz batera bere lagunakin batean juango zala eskeñi zion eta eskeñi ala egin zun. Emengo añantzaleak ere ¿ez aldakizute

maiz juaten dirala Guadalupe, Itziar eta Begoña'ko Ama Deunarengana, Beraren laguntza eskertu naiez?

—Bai, ala da (ontan ontzi buru zegonak esan zun): bañan, Jaunak, bazkaria gerturik dago ta befi-ketak utzirik ¡jatera! ¡Guazen!

BAZKALONDOAN

ONTZI-BURUAREN agindua ontzat artu zuten mutilak, beti bezela jateko gai zirala: mai ta aulkirik etzegola ta laster ordafia arkitu zuten: zeuden tokian bertan belaunikatu, esku-zapiak koskan zabaldu, ta jauferat ta jbai, ongi jan zutela eman zien guztia! Len zartagiak sukaldean arin ibili ba-ziran, etziran gure mutilak motel eta alperik ibili.

Itxas-miña urdail utsean sartzen dala aitu zuten noski, ta afaultz, legatz, aragi ta otarañez bete nai izan zuten, janari ofen tarteko zuloak ogi, goso ta ardo onez estalirik. Poto, poto egiñak altxa ziran mutilak eta jaien poza bildurik gabe ibili zitezkelarik igari zutenean!

Giroa ere atsegin zegoen; lañu tartean erdi estalita zebilen eguzkiak leñuru argiz gure itxas, mendi ta zelaia dizdiratzen zitun eta ezin edera goa izan ziteken eran agiri zan Gipuzkoa polita.

—Irakasle Jauna (zian Txomin zeritzan mutil bategi), zenbateraño goitia izango dute aurrean ikusten ditugun mendi oiek?

—Geienak bost, sei edo zazpireun neurkikoa, gutxi gora bera; ta Ernio, Altzokori eta beste batzuek anei ta geia gokoa ere bai.

—Ta ¿zertarako dira alako mendi goiti oiek?

—Ara, ¿zertarako diozu? Abere, egazti, zuaitz eta landareak bizitzeko noski: abere batzuek, nañu ile-dunez estaliak daude eta toki otz samarak nai dituzte atsegin egoteko: zuaitz eta landare gogorak ere bai: ¿año, gabiñoi edo zapelatzik ikusi dezu Loiola 'ko ibarñan? ¿otso ta artzik Alderdi - Eder inguruan?

Gure Jaungoiko al eta jakintsuak, ortzi ta ludiko gauzak, zama, zenbaki ta neurñi egokian egin ditu ta goi ta beko guztiak, Egileak nai ala daude edo bizi dira.

Itxasoak ere, era berean, toki zakonak ba-ditu eta onela, be-bean (len jan dezuten otarñak bezela) es-talki gogorñ dutenak, bai ta itxuak diran edo berez argia daramatenak bizi dira: itxas zakon erñian, beste arñai arin, aundi ta ugariñnak; eta itxas azalean berñiz arñai txikiak.

Ba'dira ere, abere, landare, egazti ta arñai tartean, ur edo lur beroetan bakarñik, bizi litezkenak, baita toki otzetan bizi bearñak ere.

—¿Ta ezin al litezke abere ta egazti oiek nai ala aldatu? Berenez elirake aldatuko; bañan beañez ta maiz bai. Arñai aundiak txikia jan nai ta onek igesi jun beañ izaten du; aundia atzetik dijuakio eta batzuetan bere bizi-tokitik al urñtiratzen dira; ta aldenduak, batean otzez, bestean beroz edo beren janari egokia ezin arkiturik, gosez kaskartzen asi, banakatu, ta aientzen edo iltzen dira.

Gizonak bakarñik, belñ atsegin ez arñen, nai duten toki ta giroan bizi litezke; ta oiek, eize, arñantz edo irabasgai bidez, arñai, abere ta piztiak iltzen edo

izutzen dituzte: oregatik abere ta pizti asko itzalpean gelditu dira.

Bañan alako galpen oren eragile izugarrienak, ugaldiak eta luñ ikarak izan dira.

—Ta izer dira luñ-ikara ta ugaldiak?

—Gerozeago adiraziko dizkizuet; bitartean jostazen ibili zaitezte.



LUR-İKARA

ELANTXOBÉ'TIK Bermeo alderako itxas bidean ontzia zebilela, mutilak, Bizkai'ko mendi zelaiak Gipuzkoa'koen itxurekoak zirala ikusiaz eta Irakaslearen adirazgaiak entzun naiez, laster bildu ziran eta irakasle maitetsu aiek ori igafiaz eta kutunen asmoak bete naiean, onela zien:

«Lur ikara, gertaera izugarienetakoa da, neketsua, negargaria.

Jakintsu batzuek (1) diotenez, lur baéngo su ta garak, eguzki bidez edo noizean bein aunditzen dira; ta su ta gar oien indarez beren labetzat dauden arkaitz gogorak beroz aunditu ta zabaldu beaéan arkitu eta guztiak batean berdintsu eziñez... lertu ta puzkatzen dira.

Beste askoen (2) ustez, itxaso ta luréko ur ugariak, arkaitz pitzatuetatik baénera sartu ta lur baéngo meatz, izagai ta ariakin nastuta bat egin ta berak irakiñaziaz, su ta garak bezela indar egiten dute eta ondorengo arkaitzak puzkatzen dituzte.

(1) Bulkan-zaleak. Bulkan = su ta gafen jabe ta gezufezko Jaungolkoa, gizon sinismen okefekoen tarteak.

(2) Neptun zaleak: Neptun = ur eta itxas jabea ta Bulkan bezela gezufezko Jaungolkoa.

Badira ere lur bañengo ondamen ori tximist-indaréz adirazten duten jakintsuak: oyek diotenez, eguzkiak, ludi borobileko zaiatz aldeak geiago berotzen ditu Ipar eta Ego aldeak otzik utziaz, eta ludi geri inguruan tximist-indarā sortzen da erāstun batēn eran, Ipar Ego aldera ludi bañenean dagon beste gañerako tximist-indarā bideratuaz (1).



- I Ipar aldea.
- E Ego »
- S Sortaldea.
- J Jestaldea.
- B Eguzkiaren bidea.

Tximist-indartza au (solenoides = σολεινοειδης erderaz deritzana) batzuetan luzean agertzen da ta ludian beriz borobil edo erāztundua, oregatik itxas-orātza edo burni bizia goltik bera ikusten degu noizean bein aldaketa gogorak izaten ditula; ta ara zergatik diran aldaketa oiek:



Aldizka eguzkiak, arpegian pitz beltz batzuek agertzen ditu: pitz beltz oiek berotasun izugaria dakarte ta oregatik ludiari bero geiago bialtzen dio ta orduan ludi-gefiko tximist-indartzak aunditu ta zabaldu bear izaten du, era batean bere antzeko beste indarāk usatu ala, aurka dauzkanak bereganatuaz: onela aldamene-

(1) Cæsted jakintsuak igafz zun au, onela:

A=ontzian tximist-indarā sortzen da; K = aldera dijua indar ori; indar ori goltik bera ba-dijua; B = burni bizia, esker eskubira dijua: era be-rean gurutzuaz burnia goltik bera; K esker eskubira.



tako arkaitzak aruntz-oruntz ta dardarka darabilzki eta azkenean lertuazi ta puñukatzen ditu.

Dana dala; su edo ur edo tximist-indar bidez, sumendiak irikitzen dira; beren tontořetatik suzko lañu, izagai irakin edo ari ta auts ugari zabaltzen dituzte: luřa pitzatzen da alde batzuetan, besteetan beriz uratu: zelaia goratuaz mendi egiten dira; mendiak zapaldu; eta luřa asko josten danean, *tzunamis* deritzaten itxas uññak, ibar, xelai ta basoak estaltzen dituzte:

Lura dardar, etxeak kris-krask dagitela, gizonak laři, abereak ojuz, piztiak egan iges, nora jun ez dakitela dabilta, nunai kařasi, otoitz eta zalapart izugaria entzun da ikusten dirala.

¡Zenbat eři, etxe ta jauregi ondatzen diran! ¡Zenbat gizon eta sendiak eriotza arkitzen duten! eta ¿abere, zuaitz eta piztiak? ¿nork jakin?...

¡A, Patxi!, alako esturasunean arkituko baziña, ¿zer egingo zenduke?»

—Jaunari, ben-benetan, laguntza eskatu ta al-banu iges egin.

—¡Al-banu! ondo diozu, Patxi: gizonen gaiztake-riengatik datoz geinetan gertaera izugaria olek, eta Jaunak (1) astindu nai ditun gizon gaiztoak lenbizi ltxutzen edo erotzen ditu, eta itxu ta eroak ¿nora juan litezke?

—¿Ta maiz izaten al-dira lur-ikarak?

—Bai, bai: eunkide ontan bertan, beste askoen artean, lau oso izugaria ta bildurgaria izan dira, Kaliforni, Txile, Martinika ta Katani'n.

—Ta, zuk bateonbat ikusi al-dezu?

(1) Quos vult perdere, prius dementat (Deus).

—Zori txaréz, Txile'ko lur-ikara gogoréan arkitu nitzan.


—¡Ene! Alakorik ikusi bear gabe, Jaungoikoak zaindu gaitzala!

—¡Ala izan dedila! Ta, gerogorako utzi dezagun ugaldia zer dan esatea.





Patxi gaztearen bikaintasuna



UGALDIA

Giro atsegiñean arkitu aŕen, udararen asieran zedula ta, mutilak bero ta egaŕi zeuden: ofegatik irakasleak eman zien atsedena etzitzaien gaizki etofi, ez ta ere ur otzizkarekin batean eman zizkien eta goizetik gerturik zeuden opil goso ta geresi mami-tsuak: azkari labur ofen ondoren, mutilak len bezela irakaslea inguratu zuten eta berari ugaldia adirazi zezaiela eskatu zioten: irakaslea atsegin artaratua, onela itzegiten asi zitzaien:

«Gizadi asieratik ondo zekiten gizonak, Jaungoikoaren mendean zebiltzala ta Beraren aginduak beteaz ondo biziko zirala, baita ere, Jaunak nai ez ala, okertzen baziran, astindu gogoŕak eraman bearko zituztela: ala ere baster eta Jaungoiko maitetsua guztiz asafetu arte, gaiztofu ziran Adan'en seme alaba ugariak.

Ta, Jaunaren azaŕeak bildurgaŕiak izaten dira: begiratze zoŕotz batez luŕa dardarka jartzen du: mendiak su ta gar jartzeko berak ikutu besterik ez du.

Jaun altsu onek, bada, egin zitun gizonai bizia eman zielako damututa, guztiak aintzeko asmoa artu

zun; bañan, Noe ta bere semeak ta beren emasteak, onak ziralako bizirik utzi zitun.

Noek, Jaunak agindu ta erakusi zion eran, ontzi aundi bat egin, eta an, abere ta pizti bikoiak bildu ta sartu zitun, bera ere sei seme-alabakin batean ontziratuaz.

¡Laster amaitu ziran Noe'ri par egiten ziotenen algarak, baita gizon gaizto aien afokeri ta obenak ere!

Zeru ta ludiko ur alkartuak, ebi jasa aundi bat bidez, eta eun da befogei ta amar egun bañu, luferatu ziran: ur ugari aiek, baztar guztiak bete ta gero, lotzen asi ziran, Noe'ren ontzia jaso zuten eta gero ta gorago zijuaztela, gizonak lañitu zituzten... ¡Gizon aien oju, naigabe ta zalapartak! ¡Gizagaxoak!

Beren emazte ta seme alaba maiteak aurrean zituztela eta al zuten janaria guztien artean zeramakitela, mendietara igotzen ziran gizon gizagaxo aiek... ¡alpefik! Mendi magaletara igotzen ari zan ugaldia ere!

«Beste mendi goitiago artaraño ez dira nunbait igoko ur ondatzale oiek» (zioten) eta bidea galdu baño lenago ara zijuazen... eta ¡alpefik!

Ugaldi uñiak beren atzetik beñi ta gora ta gora!

Oraindik aruntzago juan bear; bañan mendi tonforak banakatzen asi ziran, gizon da emakume taldiak guztiak batean igo nai zuten... da gnork zun tontor aletaraño lenbizi juateko esku bidea?

Lafi dabiltzanean oso berekoiak izaten dira gizonak!

Len esagun, adizkide ta anal maitetsuak ziranak, abereen lagundian eta oien antzera amoratuak, beren artean etzaiak balira bezela burukan zebiltzan: indartsuenak aulak erailtzen zituzten eta al-zutenak gorago

Igotzen ziran beren seme nekatuak besoetan jasoaz.
¡Ura lana!

Bañan gizon aien neke, izardi ta egiñalak etzuten amairik noski! Egunetik egunera aul ta neketsuago gizonak, miñez beren emazte ta seme kutunak utzi bearean arkitzen ziran... ¿nork jaso lezazken sorbal-
dan? Nai ta ere ezin.

Batzuetan igari, besteetan itxas ikaragari artatik igesi ibili bearean, naiko nekea zun bakoitzak bere burua zaintzeko.

Mendi goitienetara igo ziran gizon banakak, beste galbide gogoña azkenerako izan zuten: abere ta pizti biotz gabeak auferatu zitzaizkien eta mañuka ta bere biziko amofoan etzien gizonai arkaitz gañetara igotzen uzten. ¡Ango burukak, guda ta birauak! ta guztia al-
perik! Ugaldia gora ta gorago beti!, arkaitz guztiak atzitu ta estali ziran: orduan amaitu ziran burukak. Tontor goitienetatik amabost besakada edo zortzi kanaz gañera itxas nintsu artako ur aparéztuak eldu ziranerako, gizon, pizti ta abere guztien ondapena osatua zegon...

¡Noe'ren ontzian zebiltzanak bakañik bizi ziran; beste gañerakoak, itxas zatar aien azalean zetzaten, ur ospintsuan elbiak itota dauden bezela.»

—Ai, ene! (zion Txomiñek) biotza samurtu zait, alako galpenak entzuniki!

—Ez da añitzekoa Txomin, ugaldi aien oroipenak ni ere samintzen nau ta.

—Ta, ¿nundik ainbeste ur bildu zezaken Jaungoi-
koak?

—Ezerezetik zeru ta ludia egin zitun Jaunak, eñez bildu zezazken andik eta emendik nunai ugari dauden

ur ta bere gaiak. ¿Nundik datorkio asiera urari? Urgai ta sugai deritzaten bi (1) luñiñen *bilketa* utsetik: ta luñi oietatik naikoa bildu lezake Jaunak ludian bakañik; ta ¿aizetegian? eta ¿izar tarteant?

—Ori ta gelago egin lezake Jaunak ta noiz nai, guztiz altsua da ta.

—Bai, bai; bañan gogor ekiten duna ere bai.

—Etzazu olakorik esan, Txomin: ludia, bere mendi, zelai, zuaitz, abere, pizti, añañ ta guzti; bai ta ere ortzi zakoneko izar da eguzkia, guztiak batean eta bakoitza bere erara Jaunak agindu bezela beti zuzen dabiltz; gizona bakañik, sari edo astingai izan dedin, Jaunaren aginduak, berak nai ala, egin edo uzteko eran dago. Gizona, ondo ta zintzo badabil Jaunak bereganatu ta donokian eta emen ezin igafi lileken era doaitzuan saritzen du; bañan oker ari bada, gaizki dabil, Jaunaren aurka dago ta astindu gogora izango du. Jaunari, bear zaion begirapena ukatzeak, min izugaria ematen dio: au da gizonaren oben laña, gaitz aundiena, gaitz bakaña.

Ez da zeru ta ludian, Jauna Bera ez ba-da, alako okerkeria bear ala ordaindu lezakenik; ez su-leizeko min da nekeak, ez gizonen naigabe ta kalte aundienak, ez ta eriotzik ere...

—Bilbo añañ gaude, Jaunak! (zion ontziko buruzanak) Au entzutean, irakasle ta mutilak bat batean txutik jari ziran eta Algorta, Neguri, Ondañeta, Portugalete ta Santurtze'ko eñiak ikusi naiez banakatu ziran.

(1) *H* = urgaia = ὕδρωγενος; *O* = sugaia = οξυγενος — *H²O* = ura edo uda.



Bizkai'ko zubi txintxilikatua

BILBO'N

Ta bai ikusgaria dala Bilbo'ko kai ta ibai saferat! Kaleko ingurumaian, bost efi, bata besteari etxe aundi ta jauregi politez erantsiak dirudite ta bostak guztiz ederak dira.

Portugalete ta Ondareta bitartean, burnizko zubi galant bat ikusten da: zubi ori, burnizko lau oin eta alde batetik bestera dauden burni-ari biurituen bidez, txintxilik dago ta txit goiti, ontzi aundiak Ibaizabalean gora ta bera ibili litezkela: ta, zenbat ontzi! ta bai aundiak! Baiona'tik asi ta Pasai, Donosti, Bermeo ta abar Euskal-efiko itxaskaletan ezin ikusi litezken aña ta añakoak!

Ta Ibaizabal'eko amai zakon edo izadaña? Euskal-efia esker eta betik mugatzen dun Ebro, eskubitik muga zan Zinka, ta goi aldetik muga dan Adur, iru ibai oiek, Ibaizabal baño luze ta ur geiagokoak dira; bañan ez bera bezin egoki zakondu ta nasaz beteak.

Ta ibai pozik zijuazela mutilak ibai bañura sartzean, zubitik txintxilikatutako gurdia gizonez betea, aldatzen eta esker-eskubitik ainbeste ontzi, tximist-gurdi ta gizon taldeak ikusiaz! Eta onela gero ta gero afitu-

goak, ontzi tartean amazaspi anei neurkin (17 km.) ditun bidea iragan zuten, ia bi ordu igaro ziran arte.

Bilbo'ko biotza dan Ondartza edo *Arenal* deritzan tokiraño juan ziran, zubi zabalaren ondoan geldituaz.

Afatzaldea auferatua zegon, gaba zetoñen eta ontzitik irten da ostatu bila juateko garaia zan; eta lenbailen ontziburu ta itxasgizonai eskerak eman da agur samur bat egiñez, ontzia utzi zuten eta iraskaslea buru zutela, zubi aldera igo ziran.

Ikusgaria zan mutil talde ura! Amalau edo amabost urtekoak guztiak, soñez berdintsuak eta egoki jantziak, beren edertasuna adirazteko aukeratuak ziruditen: zubian aruntz-onuntz zebiltzanak, mutilai begiraka gelditzen ziran eta maitetsu agurtzen zituzten; bañan, zein ote ziran eta zertara etofi litezken jakin nai aŕen, etzien ezer galdetzen. Ala ere, zaldun bat irakasleari aurkeztu zitzaion, onela itzegiñez:

—Azketsi, Jauna: ¿zein dira mutil oiek?

—«Ikusi ta ikusi» ikuritzat duten Donosti'ar batzuek; nere mendean, Euskal-efi guztiako gauzak eta auferapen aundienak ikustera datoz.

—Egun txarretan zatozte, Jauna, sinista nazazu.

—¿Zergatik ez sinistu? gizon zintzotzat, diruridazunez, artzen zaitut.

—Eskerik asko; ta orain ostatu bat bearko dezu; ¿ez da ala?

—Bai, Jauna.

—Atoz ba nerekin eta egoki egokiena erakutziko dizut.

—Eta gizon zintzo aŕek, esan bezela, irakasle ta ikasleak oi garbi ta apari eder bat izan lezateken ostatu batera eraman zitun.

Ostatuan ondo apaldu ta eguneroko otoitz samur-
ak egin da gero, mutilak oieratu ziran, irakaslea ta
zalduna alkarékin apalondoan itzegiten utzita.

¿Zer itzezin eta erabaki zuten oiek? Geroaseago
jakingo da. ¡Biar arte!



BILBO'TIK GAZTEIZ'ERA

URENGO egunean goiz samar jeikita afiturik gelditu bear izan zuten mutilak, Gazteiz'era juan bear zutela jakitean.

Ala ere, agindu zitzaien bezela, beren nafu-kutxak jasorik eta Ego-aldeko geltokira kafikaz kafika zijuazten, bitartean Bilbo zar eta befia al zan ala ikusiaz: Garaiz eta kezkiak gabe geltokira iritxi ziran; su-gurdia artu zuten eta kito.

Su-gurdia ibiltzen asi ta bereala, irakasleak bere asmoak zergatik aldatu bear izan zitun adirazi naiean esan zien:

«Atzo nitun asmoak utzi bear izan ditut, ene kutxak; gurekin arkitu zan eta afaldu zun zaldun on afeak, gaur edo biar Bilbo'ko langileak oporketan asiko zirala esan zidan, eta enuke nai, lan gabe dabiltzan gizon azafetuen istiluetan, zuek urduri ibiltzea. ¡Gizona dabil, Jaunak darabil» esan oi da, ta Jaungoikoak ala erabaki dun ezkeror, guazen lasai ta patxaran Gazteiz'era, ta an, eta Beko-Napar aldean, zelai zabal eta soro ugariak ikusiaz, lugintza zer dan ikasiko degu lenbizi, gerogorako olkintza ta salerosketak utziaz.

Lugintza da gizonentzat beren janari ta jantziak dakartzkina; *olkintzaren* gai ta azkumen aundiena; eta *lugintza* (1) ta *olkintza* (2) *sal-erosketa*'rako (3) gai bearak.

Lugintza bidez, gizonak, aziak ereiñaz, landareak aldatuaz edo berez datozen belar ta zuaitzak zintzo zainduaz irabaskizun aundia eskuratu lezake, baita ere, meatzak atereaz, abere ta piztiak eiztatuaz eta era berean, itxaso ta ibaieetatik afañ ugari bereganatuaz.

Olkintzez beñiz, luñetik datozkion gaiak, fresna eta biurkin bidez, gizonak saneuriz obetzen ditu eta emen edo urutirako salduaz obekuntza oñen ordaña irabasten du.

Sal-erosketarako zenbat eta bide geiago izan, obe: ta, Jaunari eskerak eta gure ágintari zintzoai bejondeiak, nai aña burni-bide (1.000 km.) ta gañera beste bide zabal aiek baño amar aldiz ta geiago Euskalerian ditugu ta noranai sal-erosgaiak aldatu genezazke gure erietako aberastasuna aunditzeko eran.

Au ala dala, gaurtik asiko gera *lugintza* zer eta nola auferatzeko gai dan ikasten, *Gazteiz*'ko zelai zabalak bidez ikusiaz.

Ortarako Orduña'n geldituko gera; uri ontan bazkalduko degu, ta gero gurtariñetan *Gazteiz*'era jextxiko gera.

Bitartean, *Bizkai*'ko mendi zelaiak nolakoak diran ikusi zenezatezke, baita lgañi ere, zenbat diru bear izan dan gure mendi oien tartean alako bide zabal eta

(1) *Lugintza* = agricultura.

(2) *Olkintza* = industria.

(3) *Sal-erosketa* = comercio.

garbi eta inñun oberik arkilzen ez diran iragategiak irikitzeko.

(5) Irakaslearen baimena artu ala, mutilak banakatu ta su-gurdiko leioetan jaří ziran, beren begi ikusi-zaleak, nai aña mendi ta erekai begiratuaz, asetu arte eta amaikak inguruan Orduña'ko arkaitz aundia ikusi zutenetik, bertako burni-bidetik, bultzia nola orma izugarí, zubi goiti ta luze eta arkaizpe ikaragaríetatik gora bera zebilela ikusiaz, arítuta gelditu ziran.

Orduña'n jetxi, bazkaldu ta kariketan zerbait iragan da gero, bi gurtariñetan Gazteiz aldera juan ziran, Orduraño ikusi etzituzten zelai zabal eta uguriak bidez zekuzkitela.





GAZTEIZ

Miren Deun zurlaren Zeia

GAZTEIZ

ZELAI zabal eta aundi baten erdian eta mendi txiki baten tontor, magal eta oñean dago Gazteiz, uri aundi ta polita. Bean, kafiika zabal eta zumardi edefak ditu: erdi aldean, zeï txukun ta galantak, es-talpe egokiz batzuek eta etxe ta jauregi aundiz ingu, ratuak guztiak: goi aldean beriz dauka Euskal-eriko toki gutxietan arkitu leiken ikustegi polit politena.

Gazteiz'ko ikustegi ondorean eta uruti, ezker-esku-bi ta ipar aldera mendi izugarriak daude (Bizkai, Gipuzko ta Napaña'ko mugak): ego aldera beriz mendi txiki ta banatuak Ebro ibai alderuntz jessen ari diranak.

Ikustegi ortatik, eri txiki asko, su-gurdiz eta ugari diran bide zabalez alkartuak daude eta gure mendietako basefien ordeiz, ango zelai aundia lantzeko neka-zarien txabolak dirudite.

Ez da Gazteiz, Donostia bezin txukun eta egokia izango; ez ere Bilbo añako aberatza; ez du Araba guztiak, Bizkai ta Gipuzkoak dituzten añako olkin-tzik; ez ta ere bi erki oiek duten sal-erosketarik: ez du Iruñak añã gudategiko antzik izango: ala ere, uri polita da, nai ala aberatza; eta toki egokian dagolako,

naiko aldiz gudan jardun bear izan du, eta gaurko egunean, beste iru uri aitatuak añakoa ez izan aŕen, eŕi onenetako eta gentzatsuenetakoa da.

Gure mutil talde polĭtak, garai onean iritxi ziralako, ta ostatu on bat arkitu, an txukundu ta zerbait jan ondoren, Gazteiz guztia goitik bera ondo ikusi zuten, baita antziñetako eŕti ospetsuaz apainduak dauden eliz eta jauregiak ere.

Giroa atsegin zegola ta gure mutilak aŕatzaldean, beko aldera, *Florida* deritzan ibiltegiara jetxi ziran eta beren edertasun eta oitura egokiaz iñun bañio geiago begiratuak izan zirala, Gazteiz'tar askok aitortu lezateke.

Ontan, irakasle Jaunak esan zien.

—Biarko bear ditugun haimenak eskatzera nua, ta bitartean zintzo ta asko aldendu gabe gora ta bera ibili zaitzte.

—Bai, Jauna, bai: ta emen zuri itxoiten egongo gera; lasai jun ziñezke.

Aldendu zan irakaslea eta mutilak gora ta bera atsegin zebiltzan.

Alako batean, gure mutilen aŕetik zijuazten bi neska mutil koskor gerlizko pelota bat zeramakifela: pelota bide aldera erori zitzaïen eta aŕen bila junai izan zuten bi lagunak, mutila aŕerago zijuala; garai artan bertan gurtarin bat zetoŕen eta mutila zapaltzeko eran arkitu ala, mutil donostiar bat tximista bezela aŕeratu zan eta mutil koskoŕari elduaz eriotza gale-razi zion, bi mutilak erori ta zikintsu geldituaz.

An zebiltzan andre ta zaldunak kaŕasika lenbizi, ta algaraz ta txaloka gero jardun zuten. Etzuten miñik artu mutilak, ez batak eta ez besteak; ta biai ango

gizon emakumeak «bejondeizula» esanez mutilak laz-
tandu ta garbitu zituzten eta orduan bertan zetofen
irakasleari gertaera adirazi zioten.

Irakaslea guztiz poztua, mutilakin batean ostatura
juan zan.



LUGINTZA

URENGO goizean, zaspiretako gosaldu ta gero, beren ikaspenetara juateko mutilak gerturik zue-
dela, bi gurtarin aundi agertu ziran ostatu aurrean;
gurtarin aien batetik, zaldun bat jetxi zan eta ostalari-
ari galdetu zion:

—¿Oraindik etxean al daude mutil donostiarak?

—Bai, Endore Jauna, ta oraintxen irtetzeko as-
moak dituzte.

Au entzun ala. Endorea igo zan eta mutilakin
atean agertu zan irakasleari, guztiak batean agurtuaz,
onela galdetu zion:

—¿Zein da atzo emengo mutiltxo bat eriotzetik
azke utzi zun mutila?

—«Atoz, Patxi (zion irakasleak); Gazteizko Endo-
re Jaunak zutzaz galdetzen du ta.

—Ona, ni emen (zion Patxik, Endoreangana apal
aufferaturik).

—¡Ene maitea! (zion Endoreak mutila laztanduaz).
Bart eginkizun aintzagari bat egin zendun eta efi guz-
tiaren ordeztu eta naiez «¡bejondeizula!» dizut, eta mu-
tiltxo arien aitak agindu didanez zu saritzera natorkizu.

—Ez det saririk nai, Jauna: beste edozeñek bear
eta egin zezakena besterik enun egin eta.

—Ala ba'da, ez diot ezer emango; bañan bere gurasoen izen eta agergaiak jakin nai nituke.

—Jakingo dituzu ta neronek esan da noski.

—Ondo dago, irakasle Jauna; ta orain, laguntzat artu nai ba-nazute, zuekin juango naiz Lugintz-lkastetxe'ra: or bean bi gurtarin dauzkat zuentzako ekariak.

—Bai pozik eta eskefik asko, Jauna: ta lenbailen juan bearko degu.

Au irakasleak esan ala, jetxi ziran guztiak, eta gurtariñetara igo ere bai, Endore Jauna ere, ostalariakin itzegin da gero, igotzen zala. Ta patxara atsegiñean, ze, karia, soro ta baratz politak bidez ikusirik, Lugintz-lkastetxe'ra iritxi ziran.

An, gure ikerle maiteentzat guztia gerturik zegola zirudin: ango buru zegoen Jaun jakintsua bideraño atera zitzaien: moñoi ta ikasle ugari atarian eta beste batzuek an da emen zeuden gure mutil donostiarai laguntzeko; eta «au ta bestea nai degu» esan besterik etzuten mutilak, beren gogoak betetzeko.

Endore Jaun, lkastetxeko buru eta irakasle artean, oraindik goizegi zala ta, eguzkiak geiago berotu zezaken baño lenago, soro, baratz eta aietako landare ta zuaitzak ikustea obe izango zalakoan, mutilak at bialtzea erabaki zuten eta oiek, agindu ala ta pozik atera ziran. Amañetan bildu ta lkastetxe'ko buruak beregan artu zitun mutilak, eta nai aña ikusi ote zuten afeak galdetuaz eta baietz oiek erantzunda, maitetsu ta garbi lenbiziko itz eta erakustaldia onela asi zun.

LUGINTZA-BASOAK

LURAK berez damazkigun emaitz onenetakoa da gure mendi ta basoetan dagon basataldia: lenbizi basoak, lurra estalki orlegi ta politez apaintzen dute: oregatik, Euskal-efira ta udara bitartean, ainbeste erbestetar datoz gure mendi ederaċ, aġiturik aintzatzen dituztela.


Bigaġen, basoak, gizon eta abereai itzalpe atseġiġa eskeintzen die ta gaġera eguzki beroz legortu litezken belar, peretxiku ta garoak, luzaro diraute basoaren itzalpean, gizon abere ta piztiaġ janari gosoa ta atsenden zoragaġia eratuaz.

Nunai oartu dan gauza ta aġigaġia esango dizuet, mutilak; mendi erantzi, legor eta itxusien ondorean ez da ebirik izaten; mendi jantzi, bigun eta egokietara beġiz, naiz datoz ebi-jasak. ¿Zer dala ta? Ostoaċ, zuaitz oġak lurpetik bereganatzen duten ur mea luriġntzen dute ta ugari: ur luriġia egunez beroak jasotzen du, ta otzak beġiz jetxiazi ta intzez gabetan eta ebiz egun otzetan, ur luriġi ori urtu eta eroritzen da, beġiro zuaitzak garbitu, lurra buzi, aleak bigundu eta landareentzat janari-gaġiak urtuaz.

Ingalandaġak, Eġipto legoġeko, iġoiz ebirik izaten etzan tokian, zuaitzak ugaritsu landatu zituzten eta



Basoa - Zuaitz ebaketa



orain ebi onuratsuak izaten dituzte: len, Nilo deritzan ibai ugaldi bidez, zerbait edo asko eskuratzen zutenak, orain ebi bidez geiago ateratzen dute.

Beste ongai bat dakarte basoak. Zuaitz zuztraiak lurpean zabaldurik, lurari eutsitzen zaizkio eta ez diote josten uzten: onela ebi-jasetan, egaritsu dagon lurak ur onuratsua beregenatzen du lenbizi, eta urez ase danean bakarrik ta ez lenago, arkaitz gañetatik eta pizkabana juten uzten dio ta orduan ur onuratsua, lur azpirik eta gaitzik egin gabe isuriaz, iturri bitartez azaltzen da. Mendi erantzi ta legoñetan beriz, ebi-jasa datoñenean, arkaitz gañean ezin gelditurik, ur amilkoña indartsu josten da ta berakin da berarekin batean lur daramaki, ibarñetan kalte ta ondapen izugarriak dagizki ta mendi magalak ezertarako ez dirala uzten ditu. Ebro-peko mendiak ikusten ba-dituzute, nik orain esana baleztuko dezute.

Zuaitzetatik ateratzen ditugu, itxas-ontzi, urutizkin eta urutidazkiñetarako tantai, ardatz edo aga luzeak, etxe ta beren bizitzetako zurak, mai ta apalak egiteko olak, sua piztu ta iraunazteko adar eta izpilak, baita ere zimauria egiteko orbelak. Zuaitz baten izpirik ez da alperik galtzeko danik. Zuaitz guztia ongai dago. Bata bestez, zuaitz bakoitzak sei ogerleko eman lezaizkiguke; ta au ala dalarik gnork zenbatu Euskaleriari dakarkioten aberastasuna?

Oñegatik, zuaitz bat beañez moztu bear ba'litz, beste txiki batez edo azi bidez ordaindu bear da. Basoai su eman, zuaitzak zulatu ta azalik gabe uztea, gaiztakeri izugarria eta galpen aundia izaten da.

Baseñietako aiton zintzoak, gaztetandik landatu dituzten zuaitzak ikusiaz, poztutzen dira.

Zuek ere, noizean bein zeon mendietan zuaitz landareak jartzen ba-dituzute, zartzañoan pozturik arkituko zerate. ¡Ala izan dedila!

Orain jostatzera ta gero bazkaltzera zuazte: ta agur, arátzalde artel



LUGINTZA-LURAK

MUTILAK, jostatzera zijuaztenean, arituta gelditu bear izan zuten, moñoi batzuek kerizpe zabal ta itzaltsu batean maiak jartzen ari zirala ikusi zituztenean.

Oni ta ari galdezka, Endore Jaunak mutilakin batean jan nai, ta arañño bazkaria eramanazi zula igarñi zuten eta irakaslea ere artara etsia zegolakoan, berak ere etsi ta poztu ziran.

Bazkari bitartean, Endoreak, Patxi bere aldame-nean zula, onen alde asko itzegin zun, egun aurreko ekintz bikaña bero aintzatuaz: mutila, barundik poz egon añen, erdi lotzatua zirudin: bere lagunak, igüiñik gabe, txalotu zuten eta atsengintsu guztiak egon ziran.

Bazkalondoan, gizonak kea ateratzen eta mutilak jostatzen ari ta ari ibili ziran.

Iru ta erdietan mutilak, agindu ala, bilduta zeudela, lkastetxeko buru zegona ere agertu zan eta onela bigarren itzaldia asi zun:

«Zuaitzak landatzeko lur txit zakona bear da; landare txikientzako beriz, kanerdiko zakontsua naikoa da; bañan, ez da nolanaikoa izan bear.

Lau gauzek osatzen dute lur ereingala: ondarki (1), kare (2), buztin (3) eta landakutsuak (4);

Ona emen, or be'ko sorotik ekañ dan luña (5): 1.000 aztaki edo kgr. batekoa da: burni-gorizko ontzi batean sartu dezagu gero ontzia goritu arte berotu ta aldan bezela iraulkatu, lur guztiak, erori gabe, burui gorria ikutu dezan; onela; ta ontzia luzaro iraulkatu ondoren oztutzen badegu eta beñiz iraulkatuaz aizezen bada arindu zaigu noski; eta ara, luñak, aztakiñak dionez, 900 aztaki bezterik ez ditu: ¿zergatik ote? landakutsua ere ta auztu zaigu, ta autza beñiz, aizeztu degunean aldendu da.

Gelditu zaigun luñari ur garbia botatzen ba'diogu eta al dan ala erabilian nazu-azten badegu, ur garbia, ori gori jañi arte zikinduko da: ikusi zazute egia dan edo ez: ¿baitez? Orduan jardun gaitezen: ur kutzutu ori, pizkabana ontzi ertzetik arduraz botako degu ta gelditzen dan gañerakoa beroz legortu ta beñiz aztatu.

¿Zenbat aztaki dagerzki aztakiñak? Begira, sei-reun (600): ondo; orduan luña zan ontan buztiniñ ez dago, urakin naztuta aldendu zaigu ta.

Gelditu zaiguna, ur garatz (6) ontan sartu dezagun: ur garatza irakiten asi da ta kare guztia bereganatu arte ez da geldituko: irakintza amaitu da: ur garatza, len buztintsua bezela arduraz kenduta, ara nola itxas erizeko ondar utsa gelditu dan! ¿Zenbat dago? Irureun aztaki. ¡Ederkil

(1) Silika = ondarkla = Si O_2

(2) Kare = CO_3Ca .

(3) Buztina = $\text{Si O}_2\text{K}$. Fe eta H^n .

(4) Landakutsua = ofel, belar eta abar... uzteidu ta txetuak.

(5) Emen diona, esan ala eginiez, adiraziko du.

(6) HCl.

Era ontan, luřak, landareentzako egokia izan de-
din, lau zati len aitatuak izan bear ditu; iru lenbizikoak
berdintsu, ta laugarrena, beste bakoitza bařio iru aldiz
gutxiago.

Esaten danez 1.000'rik . .	Ondarki. . .	300	edo'100'dik.	30
	Kare.	300		30
	Buztin. . . .	300		30
	Landakutsu .	100		10
		1.000		100

Ondarki geiegi dun luřa azkar legortzen da, ur
meak eřes aldentzen zaizkiolako: kare geiegiak luřa
legortu ta landareak eřetzen ditu: buzlin ugarigiak,
luzaroan eburik egiten ez ba'du, berez estutu ta legor-
tzen da, ta luřa pitzatu ala landare zuztraiak puzkatzen
ditu: landarekutsua beti bear izaten da, beste landare-
ak, beren janaritzat ongarı diran gaiak izan ditzaten.

Euskal-eřiko landa-luřari otz samařa dalako, geie-
netan kare pizka bat botatzen zaio: zimaufa, ainbeste
abere zaintzen diran bidez, ugari arkitzen da; bear
dan beroa eguzkiak zabaltzen du ta ain beara dan ur
onuratsua len esan degunez eta Jaungoikoak ala nai
dulako, oparo datorkio gure eři landaretsu ta politari.

Gañera, beste oarpen bat egin bear dizuet: Euskal-
eři-ontan, nai aña lur ta gelago dago: emengo mendi
geienak borobiltzuak dira ta beren magaletan asko
erein eta landatzen da. Euskal-eřiko zabaltasunak,
berez izan lezazken soroak, iru aldiz ugaritzen dirala
esan liteke.

Udara bitartean datozen erbestetarařak, mendi tar-
tetik ibiltzen diralako, ta beren ustez, zelai zabaletan
gariak eta ibai aldamenetan bakařik, baratzak arkitu


litezkelakoan, aritzen dira ta batzuetan esan oi izan dute: «Bañan emengo biztanleak, bear dituzten igale ta barazkiak, nundik ekartzen dituzte?»

Ori diotenak, mendigoizaleak ba'lira, bidetatik uruti zelai ta ibar'ak balekusleke ta mendi muñoetan ere baratz ede'ak daudela balekiteke, orduan ¡bai legez ta bidez arituko lirakela ta guk bezin maitetsu ta pozik ez a'ren, benetan gure Euskal-eri po'it eta abera-tza aintzatuko lutekelal...





Golde, lai, atxur, sega, itai...
ta abar lugintzarako tresnak



LUGINTZA-ALEAK

KEPA Deunaren egunean jai zala ta, Gazteiztarak bezela, Jaupa entzun eta goiz ta aratzalde gora bera ibili ziran gure mutilak, uri politeko Txadon, Jauregi, etxe ta zeiak beriz ikusiaz. Noiz eta nun-nai, gure donostiar egokiak atsegin artuak izaten ziran; ta gazteiztarak gazte oiek maitetsu agurru naiez zebiltzala zirudin.

Etziran ez, gure mutilak egun guztiko jolasez azperitu, zerbait nekatu, bai... bañan...

Urango goizean, lendik erabaki ala, Endoreak bialdutako gurtariñak gerturik zeudela ta, irakasle ta mutilak, ostalariari bazkaria Lugintz-ikastetxe'ra bialtzeko aginduaz eta lengo eguneko maikideak izango ziralakoan, beren egin-beararak deitzen zien tokira juan ziran.

Eldu ta lanean jardun, bat batekoa izan zan.

«Landa-lurak, berengan aziak erein baño lenago, arotu bear izaten dira, golde, atxur eta laien bidez: ora or, autziñetako golde zarak, ta ona emen golde beri ta onenak.

Alkarekin eta aztiro ikusi ditzagun beren lana adiraziaz.

Ta orain, guazen aurera.

Euskaldunak, golde on eta beñi oietatik asko erosi dituzte ta ondo lantzen dute lurā; oraingo atxurāk, lengoak bezelakoak dira: laiak beñiz, batak motzak, Napar'aldean darabiltzkitenak, eta luze oiek gañerako Euskal-erian.

Lurā arōtu ta aizeztu danean azia erein liteke; bañan lenagotik zein azi ona dan eta zein txarā ikusi bear da. Esku beteko gari-pila emen: ur ontzi ontan sartzen det eta ikusi zazute nola geienak ontzi ondora dijuazen, banaka batzuek ur azalean gelditzen dirala: igari dabiltzanak, zomoñoak mamia jan dielako, ozioa galdu dute eta alpeñik ereinduko lirake, eluteke ezer emango ta: besteak beñiz, ontzi ondora jetxi diranak, onak dira.

Ala ere, ez da ale bat azi dan soroan bertan erein bear; beste batean ereintzea obe: ta obego tximist-indar pizka batez eta aleak ur azpian dauden bitartean, zerbait ernaituazten badira: onela ereindutako eta ondo zaindu dan aleak ugari sortzen dira (bakoltzak beñogeñi ta geiago ale ematen ditu); eta gariketan eba-ki, bildu, garbitu eta etxeratzen dan bitartean, erdia galtzen ba'da ere gutxinaz ale bakoitzetik ogei atera litezke. Ordain edera da.

Diruak eundik sei irabasten ba'ditu, ordain ona dula esan leike; onela amazaspi txanpon bear dira, bat bakara irabasteko ta gari ale bat naikoa da, ogei ta geiago emateko. ¡Bai ugaria dala gari ereintzeak dakarkin irabaskizuna!

Egiaz, kazkabar, añi, legorte ta ugaldiak ezereztu lezaketela irabasgai ori; lugintzak berez galbide asko bai-ditu; bañan, diruak ere, lugintzak aña ez arien, bere galbideak ba-ditu ta guztiz galdu liteke.

Gari elez esan dana, arto, garagar, olo ta abar alez esan leike: ala ere, bakoitzak bere zaintza, joñail-keta ta erein eta biltzeko garaiak ditu.

Zuaitzak, ale bidez ugaritu ta beren lili ta igaleak emateko urte asko bear izaten dituzte, ta oregatik, beren adar begidun osoa lurperatuaz lenago ugaritzen dira. Ba-dira oien artean, urte batetik bestera igaledun jartzen diranak (piku oña); baita ere txertatuaz (masti adara bezela), oin zar batean ugaritu litezkenak. Txertaketak gañera beñ igalea ederñu ta obetzen du.

Ala ere, zuaitz sendo, lerden eta galantak nai ba-dira, «azi bidez jaio bitez»: aztiro aunditzen dan zuaitza, iraunkora izaten da ta».

Añatzalde arte mutilak; giro edera dezuten ezkerro, bazkaldu bear arte, aruntz-onuntz ibili zaitezte.



LUGINTZA - JAN-EDARI TA JANTZIAK

BASOAK, berez geienetan damazkiguten igalietatik onenak eta janaritzat artzen ditugunak, dira: intxaur, gaztain, sagar, urdare, urdare-sagar, gurbiz, aran, mañubi, mizpira, gerizi, ura ta abar.

Mendiko bideetan eta ugari nunai mazuzta, basakaran eta abar arkitu genezazke.

Soroetatik, gari, baba, garagar, arto, alo ta abar; eta baratzetatik beriz, azak, piper, ilar eta beste barazki asko datozkigu. Oiez gañerá, beste janari asko, txefi, bei, auntz, ardi, olo, ate, uso ta beste abere ta pizti, gure baseietan azi ta zainduak dakarzkigutenak ba-ditugu. Beste abere ta pizti ba-dira basati edo izuti diran eta gurengan ezin etsi litezkenak: oietatik, eize bidez zerbait janaritzat atera liteke: ibai ta itxaso'tik beriz, ta arantza bidez arai goso ta ugariak.

Entzun eta aditu dezutenez, Euskal-erian naiko janari badegu: aleak, Napaña ta Araba'ko be-aldean, ugari; araultz, aragi ta esnea damakizkiguten pizti ta abereak, mendi aldean.

Eizea bakañik galtzeko bidean daukagu: len, baso zelaietan, basurde, otso; artz, akuri, erbi ta orin ugari arkitzen ziran; baita ere eper, galeper, olagor eta beste egazti asko: orain beriz doi doi ta banaka ikus-

ten dira ta azaldu ala iltzen dituzte. ¡Jarkiña: ainbeste izkilo egiten diran erietan, eiztari geiegi izan eta eizegaiak igesi...

Janaria beara ba-zaigu, edaria ere bai; ta ugari ta aukeran, beste edariak utzita, bakar bakarik edan bear genduken ur garbi ta osasuntsua Jaunak bialtzen digula.

Sendagile bati, ¿zergatik ainbeste gaitz gerengandu zaizkigun galdeiozute eta edari biziengatik datozkigula erantzungo dizue?

¡Gauz guztiak, bear bezela, egin ditun Jaunak, gizonai edaritzat ur garbi utsa utzi zienean, ba-zekin noski egiten zuna!

Gizonak ere, ori ondo daki; ta ala ere, nunbait Jaungoikoaren egintzak zuzendu naiez, gauzak asma-tzen asi zan eta ardoa lenbizi ta geroztik beste edari gogor eta indartsuak arkitu zitun.

Bañan edatzale guztiak jakin bear luteke, lenbizi ardoa egin zun gizona, Noe bera ain zintzoa zana, uste gabea mozkortu eta biotz gabeko batentzat paragarri, ta beste bi seme maitetsuentzat erukigarri agertu zala.

Ur garbia bakarik edan bear gendukela ta ala ere, beste gañerako edariak nai izaten ditugu gizonak; bai gorputzari itxurez indar pizka bat ematen diotelako, baita ere biotzak alaitzen dituztelako: bañan, noiz-baitean, edari gogor oiek artzen baditugu ere, maietik edozer lan egiteko gai gerala jeiki gaitezen eta ez txerriak bezela etzanda egoteko eran.

Berez edari gosoa dan esnetik, janari minkitsu bat egiten da, gazta: esnea lenbizi gatzaritu, gero koipe gabe utzi ta legortu bear izaten da. Ardien esnetik

datoz, Idiazabal eta beste eri batsuetako gaztak. Beien esnetik beñiz, baseñi geienetan egiten diranak.

Berenez janari onak diran ale batzuetatik, edari gogorak datoz; matzetik, ardoa; sagararik, sagardoa; eta garagararik, garagardoa: matza ta sagarak, urtsuak diranez tolaretan lertu ta txetu besterik ez dute bear guriña botatzeko; garagara beñiz, legoña danez, buñti ta berotu bear izaten da ozioa bota dezan: ozioa kendu ondoren, *lupulo* deritzan ale batekin naztua beñiro urrezu bear da.

Matzaren guriña, berez irakiten azten da; sagar eta garagararen guriña beñiz, berez indar gutxi dulako, legami (1) baten bidez: iru guriñak, lenbiziko irakintza biziaren ondoren, azalean agertzen zaizkien apar eta zikinkeriak kenduaz garbitzen dira eta beste upeletara aldatu, upel oietan beste irakintz apal bidez edaritu ditezen.

Abere batzuen nafuaz lenbizi eta eun atsegin eta oial lodiz gerozeago gizonak jantzi izan dira; orain onetakoak eta esku-estalki ta beste tresna askotarako izaten dira nafuak; Euna egiteko bear dan landararik ez dago Euskal-erian; oialak egiteko artila bai, bañan ez nai aña; ta orekatik, orain urte asko dirala Tolosa'n zegoen oial-ola utzi bear izan zuten. Ala ere, Orereta'n (Eñenderi'n) oraindik eun-ola aundi bat, urutitik gaiak dakarzkila, ha-dago: Elozegi'ta'en boina-ola ospetsua badezute Tolosa'n eta Azkoiti aldean ere beste bat.

Lau itzetan guztia adirazteko:

Jazteko gauzetan, beste erien beña degu euskal-

(1) Legami ori beste sagardo edo garagardo zafelik ateratzen da, ta sagardo-legamia ona da garagardoarentzat, baita onena ere aherat.

dunak; jateko, ez; eta edateko ur ugari ta naiko sagardo badegu. Ta au ala dalarik izerगतik eta obe beafez, beste edariak ez dira gure erian eragozten Ameriketari bezela?

Aldundiak, gure eriko osasun eta aberaztasunari begiratuaz ori egin lezateke; ta lenbizikoan ez afen, gaitzak gutxitu, osasuna aunditu ta diruak ugaritzen dirala ikustean, Euskaldun guztiak, Aldundi'en erabaki zintzo ta onenetakoa izango litzaken ori, biotzez eskertuko luteke.

¡Ala izan dedila!

Au esan da, lkasterxeko buruak bere itzaldia amaitu zun. Irakasle ta mutilak, alako erakuspen garbi ta jakintsuagatik biotz biotzez eskerak eman zizkioten eta urango goizean Napar aldera Joan bear zutela-koan, maitetsu agurtu zuten eta ostaturatu ziran.

Endore Jaunak, Irakaslearengandik, Patxi'ren guraso ta beren agerbideen beriak jakin zitun eta «urango arte» esanaz alde egin zun.

Gure donostiafak gogoz afalda ta oieratu ziran.

¡Gabon!



LUGINTZA-GAZTEIZ'TIK LIZAÑA'RA

U ZTAILEKO lenbiziko egunean mutilak Lizaña'ra juateko gerturik zeudela, eskatu zituzten bi gurtariñen orde z berbil luze ta zamalari bat azaldu zitzairen.

—¿Zer dala ta berbila dakarzu gurtariñak utziaz? (irakasleak berbiltzaiari galdetu zion).

—Zuen laguna dala dion zaldun batek, berbilez lenago iritxiko zeratela ta aulki batzuek jañita bera ekartzeko agindu digu.

—¡Ondo ta txit ondot (zioten mutilak); gurtariñetan baño lasaiago juango gera berbilean eta mendi zelaiak obetogo ikusiko ditugu.

—Ala zuek nai izan eskero, eskertu besterik ez degu, ta jauferat esan zun irakasleak.

Igo ziran eta lenengo egunetan artu zuten bide berfatik atera ziran: Gazteiz'tik irtetzekoan, bi zaldun agufka ikusi zituzten ta pizkabat gelditu ziran: zaldunak, Endore Jauna ta Lugintz-Ikastetxeko burua ziran; eta beñiro alkar agurtu laguntzak eskertuaz «noiz arte?» goikoak eta «laster arte» bekoak ziotela alden-tzen asi ziran.

¡Ta bai edera sortu zitzaizela eguna! Urdin eta garbi, ortzia; gari, artoz eta martziz apainduak zelaiak;

atsegin eta apal giroa; ta eguzki dizdiratsua, aurreko mendi gañetatik igoaz, zelaiak poliki margotuaz, guztia alaituazirik zetoñela zirudin. Ta ¿Gazteiz? ¡Etzan inoiz ain apainki agertu! Ego aldera ditun liañezko ikustegi geienak eguzkiaren argi bidez dizdiratsu zeuden...

Elgoñaga'n, beko bidea artu zuten donostiarak: eskubi aldean garimeta ugari; ezkeretik gari ia elduak, eta aldizka efi txiki batzuek, beren baratx eta soroakin batean ikusi zituzten; bañan ez nai aña: bide artan auts asko zegon eta berbilak, iragan ala zabaltzen zun eta soña txuri, arpegia zikin eta txintxurá legor zituztela, berbiltzaiari azkarago ibili zedila eskatuaz bide luze ura iragan zuten.

Maeztu, iri aundi samar bat iragan eskeroz aldapak asi ziran eta mendi goi alderuntz artu zuten, bidez Zadoña'ra Burundi ibaiakin batean dijuazten eñeka batzuek ikusiaz. Gurutz deuneko Kanpezu gañean dago Napaña'ko muga ta andik jesten asi ta gero, Zuñiga aldera-eldu ta an, ankak zerbait arindu ta jantziak txukuntzeko pizka bat gelditu ziran.

¡Zuñiga'k, efi aundi samar bat izan añen, ez du ikusgai aundirik; bañan baztar txukun eta politak!

Beriz bidea artu ta Arga-ibai marmartsura alderatu ziranetik, añituta gelditu bear izan zuten mutilak, noranai begiratuaz, an da emen ainbeste pagatz eta arizti izugariak ikusi ta alako zelai polit eta efi txukun iraganaz.

¡Benetan ta ugari daudela Napaña aldean oian eder ta itzaltsuak!

Gipuzkoa'n artalde txuri ta bei pilak bezela, Amezko'etan zaldi sail ugari ta aundiak ikusten dira eta

gure baseñitarentzat, emengo astotxoan orde, obe
etoñiko lirake zaldi oiek, berenez txiki ta ñetsuak
izan añen.

Eguerdirako, bide luze bañan atsegin eta txukuna
iraganaz, Lizasa'ra donostiañak eldu ziran: an baz-
kaldu zuten: berbiltzaiari eskupeko on bat eman zio-
ten eta, bi gurtarin bilatu naiez aruntz-onuntz ibili
ziran, bitartean eñi ospetsu ta zañenetakoa ikusiaz.



LUGINTZA - LIZAÑA'TIK ANDOSILA'RA

UR-EDER ta Arga ibaiak alkartzen diran tokian astenda Lizaña'ko eria ta Arga aldamenean luzaturik, erdia mendi magalean ta beste erdia zelaitxo estu batean dago.

Len, Napañako Bakaldunak an bizi ta edo maiz berengan izaten zitunean, askoz aundigoa zan: orain, asko galduta, baiña ere eritar ugari lan bila aldendu zaizkiolako, biztanle gutxi ditu: ala ere, Txadon zar erlitsu, jauregi aundi ta etxe polit batzuek ba-ditu, baiña zei txiki ta ibai ondorean zumardi txiki, estu ta polit bat ere.

Azkar ikusi zuten eria guztia gure donostiañak eta zubi aurreko zei txikian eta eskatutako bi gurtariñak agertu zitzaizkienean, onela mutilak irakasleak zien:

«Bi asmo, ene kutunak, bete nai nituke gaurko egunean, zuek Andosila'ra eramanez: bide txafa izango degu; autzez beteko zerate...

—Ez dio ajolik (erantzun zioten mutilak), gure buru zabiltz ta agindu besterik ez dezu.

—Ez, ez: eskatuaz egiñazi litekena, ez da agindu beařik. Nere bi asmo oiek dira; lenbizikoa, Euskal-eriko zelai aundienak, zueiri, ikusi ditzazuten, era-

kustea: eta bigarëna ta neretzat samurëna, nere guraso maite maiteak ikustea.

—¡Ederki, Jauna; ta bai pozik eta atsegintsu agurtuko ditugula ainbeste maite zaitugun eskero! ¡Aurëra ta Andosila'ra!

—Bañan lenbizi oldoztu bear dezute, emendik Andosilara, Iruñara ainbat urutitasun dagola; bañan, Iruña'n ostatu egoki batean apaldu ta ondo lo egin zenezatekela: nere erian beriz, txikia dalako, ez dakit ondo izan zifnezteken. Orain aukeratu ta esan nora juan nai dezuten.

—Andosila'ra, Jauna; an, naiz ongi ta naiz txarki arkitu arën, zure mendean pozik egongo gera.

—Ezkerik asko, kutunak: ¡luzaroan eta doaitsu zuen gurasoak zaindu ditzala gure Jaunak...

Eta ezin geiago itzegiñik ta malko gozoak zerizkiola, gurtarin batera igo zan irakaslea; mutilak ere bai, eta zubi aldefik juaten asi ziran.

Lizara'tik atera, ta Juñ-mendia eskubian utzita, Aberin aldera lenbizi ta Alo aldera gero bidea artu zuten. Ordurako mendi aundiak etziran banaka besterik ikusten, eta geroseago txikiak ere utzi zituzten eta zelai zabaletara sartu ziran donostiarak; bañan guztia legor eta oritsu zekusten, mazti batzuek ez baizik; eta oiek, makal samar zomoñoz galduak: eskerak beñero maztiak landatzen asi zirala, alde aietako nekazariak.

Lerin-era iristekoan beriz Arga ibaia ikusi ta iragan zuten eta andik ordu batera ta ezker eskubira zelai ugari ta garimeta ugari ikusten zituztela, Andosila'ra eldu ziran.

Eñi ontakoak, lendik mutilen etoñera zekitelako edo aien beñiak laster zabaldu ziralako, Irakaslearen

etxe aurrean bildu ziran. ¡Ango laztan eta agur samurak! mutilak irakaslearen gurasoakin maitetsu agertu ziran eta aiek, semea bezin atsegin zeuden...

—«Ta, ainbeste mutilentzat ostaturik izango ote degu?» (zion irakasleak).

—«Ze ostatu ta ze kristatu?» (zioten ausotar eta lagunak): «guk geok bana ta binaka zainduko ditugu ta kito».

Ta banakatu zituzten mutilak, goizeko zaspiretan Txadon aurrean biltzeko agindua zutela.



LUGINTZA - ANDOSILA'TIK TUDELA'RA

ANDOSILA bezelako efi txiki ta ufutiratueta ikusgai gutxi izaten dira ta aitzeki txikienetatik ateratzen dituzte jai-gaiak..

Oregatik eta gurasoak semea ta bere ikasleak eta era berean auzokoak laguna oparitu nai zutela ta igandea zanez gañera, guztiak zaspiretan Jaupa zintzo entzun, da gero, alai alkartu ziran eta ¡jakiña! izugarizko bazkari bat egin bear zutela erabaki zuten.

Bitartean, mutilak, inguruko baratzak ikustera jua zitezkeela ta aldendu ziran.

¡Benetan eder ta edeñak dirala Arga ibaieko ezker-eskubian dauden baratz aundiak!

Nunai, mixike, gerizi, ur, piku ta abar zuaitzetatik txintxilik: luñean beñiz, marubi, kui, ur-kui txuri ta gorri, aza, piper ta abar: eta guztia, an eta emen ugari ta mamitsu ibaiko ur bidez... bañan, donostiar batek ziona, «txintxilik dauden igaliak, gordin; luñean etzandakoak zikin: or etzegok orain jatekorik».

—¿Eta marubi ta geresi oiek, motel? (zion lagun batek).

—¡Bai zera! txoriak jan dizkitek geresi gosoenak: marubi oiek beñiz, autzez beteak zeudek... iretzat, nai ba-dituk: egiaz, mutil; baratzak, ikusteko polit poliki

zeudek, bañan onuratsugoak izango itukek lukainkak txintxilik izango ba'lizkitekek.

Aragizalea zan noski onela itzezin zun mutila; beste geienak ere bai, iriparez jafi ziran ezkerok: bañan ala ta guztiz etziran Andosila'tarak añako koipezaleak.

Aberatzen eztaietan eta Jaupa-beñietako bezela antolatua zan Andosilako bazkaria!

Asiera ta bitartekoz Iruña'ko estebetea: gero txistoriz beletako salda; urindik, solomoa: onen atzetik, txefi zaietz-ezur mamitsuak eta abar... ta azkenerako, txeri txiki oso ta efeak!

¡Guztia txefiki, piper beltz ta piper ospin laguntzaz jan bear zana!

¿Eta azak eta igaleak? Baratzetan. Ta ur garbi ta osasuntsua? Ibaian.

Maiean beñiz, ardo on eta indartsua.

Ez da aritzekoa noski, onela maiz jan edaten duna odol berokoa ta noizbaitean erotu bear balitz...

Etzeuden mutilak artara oituak eta gutxi jan eta gutxiago edan zuten eta urduri samar ziruditen: kutunak onela zeudela igafiaz, urduriago jafi zan irakaslea eta al izan zun lenena, juan bear zutelako aitzekiaz, ango algara ta ojuak amaituazi zitun eta guztiak otoruari azkena eman zioten.

Mutilak, banaka lenbizi ta guztiai batean gero eskefak eman, eta irakaslearen gurasoak maitetsu agurtuaz, gurtariñetara igo, eta efikoen txalo ta algarak aituaz, Marzila aldera juan ziran.

Beñiro, ibai aldamenetik urutiratu ezkerok, alde guztietara legorketa besterik etzan ikusten; eta beko aldean Kastila aldeko mendi arkaitz itxusiak: eta okefena zana, bañengo poz eta alaitasun gutxi: egualdia,

zargori bidez, txit bero zegon; etzuten mutilak ezer edan eta egañ zeuden...

Nun edan? Zelai aietan, eriak, aundi samarāk izan aŕen, bata bestez uruti daude, eta gañera ez dago mendietan bezela iturñak nunai bilatu ta arkitzerik.

Irakasleak, ori igañiaz, gurtarintzaiari azkar ibiltzeko agindu zion: noizbaitean Peralta'ra iritxi ziran; eta an, jetxita, mutilak urez ase ziran.

Geroŕeago, Marzila'ko geltokira garaiz iritxita, su gurdia artu zuten eta ilunabar aldean ezer ikusteko gogo gaberik, Tudela'ra jetxi ziran eta, ango ostatu on batean, gorputzak urétzu, jantziak garbitu ta ondo apaldu ondoren, oieratu ziran, uréngo egunean Ebro-ibai aŕen ugazka ta Tudela inguruko baratzak ikusteko asmoan.

LUGINTZA - TUDELA'TIK IRUNA'RA

Egun txar baten atzetik, beste on bat dator geienetan eta ori bera gertatu zitzaien gure mutilai: eguna zerbait lañutua zegon eta etzuten bero egingo zunen bildurik: jeki ta txukundu ondoren, Ebro ibai zabala ikustera jua ziran: ori ta loitsu zetoñen ibaia ta ikaragarria zegon: ontzitxo batzuetan sartu nai zuten mutilak, ibaia iraganaz, ezkerreko eta Tauste aldetik datoñen uraska ikusi naiean: bañan etzitzaion irakasleari ondo iruditu ta eskubikoa bakarik, Tudela'tik *Saldua* edo Zaragoza'ra (1) dijuan uraska ikusiko zutelakoan, etsi bear izan zuten eta beraren asierara oñez jua ziran.

Egiaz, uraska ori, lan edera ta onuratsua dala! ta añen ur bidez datozen irabaskizunak zenbaterañoakoak diran! (2)

Igañi besterik ez dago, zenbat soro eder dauden, eun eta irurogei anei neurkin (160 km.) luzean eta amañ gutxi gora zabalean ditun zela! batean eta ortik, lur ondo zaindu ortatik zenbat igali ta baratzki atera litezken...

(1) Eñomatafak eldu ziranean Zaragoza, *Salduba* edo *Saldua* delitzen zan. Salent Abaren Kondaira ikusi.

(2) Irabaskizun oiek, uraska bideratu zun Pignateli Apaltzari zor zaizkio.

Bañan Tudela'n bertan ikusten da, zenbateraño ko legorketa agertzen dan uraska gañean dauden zelai mendietan, eta gure mendiai ebi bidez datorkien aberastasuna igarí leike.

Benetan, eder eta ongi zaindua dagola Tudela'ko baratx talde aberatza! an ikusten diran ale, igali ta barazkiak baño oberik, ez det uste inun izan litekenik.

An ikusten dira ta ugari gaimel zuaitzak, gosokia damaten udarbiak, prantzi poru txuri, guri ta lodiak ta... ¿zertarako geiago aitatu? Alako baratx eta zelai landaretsuak ikusi ditunak, lugintzaren aberastasun guztia bat batean igarí lezake.

Aruntz onuntz ibiliaz ta baratx batetik irten ala beste batera sartuaz gure mutilak, len esan dan guztia ikusi zuten; eta beriz Tudela'ra elduaz, bazkaldu, eria patxaran ikusi ta aiatzaldeko bostak inguruan, sugurdia artu ta lruña aldera bideratu ziran.

Aufeko aiatzaldean bezela, beriz zargori jafi ziztaien eguna ta odei ilunak ekaitzen bat adirazten zioten. Ala ere, Kastejon deritzan eriko zubi luze ta Ebro ibaia iragaten duna ondo ikusteko aña argi izan zuten; geroztik, eurijsa asi zan, guztia ilun zegoen eta irakaslearen ondorean bildu ziran mutilak eta afek bere gurasoak aufeko egunean izan zuten zorion atsegiña adiraziaz, orduak igaroazi zizkien.

Olite'ra iristekoan Napafoko Bakaldunen Jauregi zar eta ospetsua, ta gaur ia guztiz ondatua alperik ikusi nai izan zuten mutilak.

Tafala'tik gora jotzen asi ziranean, irakasleak onela zien:

—Oraintxen amaitzen dira Napafoko zelaiak: emendik aufera, mendiak besterik ez ditugu ikusiko.



—Txit aundia dirudi Napañoak; ¿ez da ala?

—Bai, noski: Napañoa, beste iru erki, Gipuzkoa, Araba ta Bizkaia, batean artuak aña ta geiagokoa izango da: eta leño batez, Lizaña, Gares, Barasoain eta Sangüesa erantzi eskero, be ta eskubi aldea, zelai utsa da; goi ta ezkeretokoa befiz, beste Euskal-eriko iru erkiak aña menditsua da ta polita.

Beñiro irakaslea, biotzak ala eskatzen ziola ta, bere gurasoen beñiak emanaz maitetsu ta luzaro jardun zan... Iruña'ra eldu arte.

Lasterka, tximist gurdian urira igo ta an ostatu-ratu ziran.



OLKINTZA - IRUÑA

Goiz jeikita, uri polita ikusi nai izan zuten mutilak: bañan alperik: egun auruko ebi ugaria etzan oraindik gelditu eta atertzeko itxurik etzegon: ¿zer egin? Ostatuan geldi egon ezker, azpeltu bear zuten mutilak; nolana ere eguna igaro bear... eta tximist gurdia bertan artu litekela ta bereala Aldundi Jauregiko estalpetan azaldu ziran eta garaiz bat artuta antxen juan bear izan zuten. ¿Noraño?

Bidez, Gazteluko zeï laurkitu ta edera, baita ere Sarasate'ren izena dun zumardi egokia zerbait ikusiaz, eritik at juan ziran; urutitik, ilun samar aïen, aïesidun uria ikusi zuten eta Ega ibai aldera jetxi ta bera iraganaz, Bilaba, Uarte ta beste eïi txiki ugari nolakoak ziran igari zuten bai, bañan ez garbi ikusi, ilun zegon eta.


«Lugintza ta bere aberasgai alde naikoa entzun eta ikusi dezute: orain, Gipuzko ta Bizkai olkintz-tokietara eldu baño lenago, nundik eta zer bidez olkintza dator-kigun adiraziko dizuet.

Ez dira beti Euskaldunak gentzatsu ta aberatzak izan: Beren artean maiz azaïe (ta berenez lasai la apalak artean, gutxi bañan gogoïak izaten dira azaïe-ak); eta gudalari bikañak izan dira: bañan gudariak izateko izkilo ta ontsiak bear eta ofegatik eta luïak zaindu eziñik, bear zuten dirua eskuratu zezaten, gu-

dalari gogor, ontzi-egile bikain eta ola-gizon izenda-
tuak egin ziran. Ola guztietan, biurkin asko ikusiko
dituzute; bañan biurkin oiek, lan egin bear ba'dute
erabili bear dira: ta biurkin oiek al dan merke ta ére-
sago igitzeko indaia bear da; ta ur bidez len, eta
tximist-indar bidez arkitzen da biurkiniñen igiketa.

Éroten bat ikusi al dezute? ¿Guztiok ez? Orduan
biarko a'altzaldean ikusiko degu: Eta eltze bat, ur
irakiñez betetako eltze bat sukaldean ikusi al dezute?
¿Bai? Orduan guztia ulertu zenezateke.

Eltze ortan irakiñazten dan ur ori, pil-pilka lenbizi
bonboloak jasonaz asten da: eltzeari estalkia ja'ri zaio-
zute ta estalkia, gora igo naiez igitzen da: gogor
estalkia erasten ba'zaio, ur irakiñaren luriñak, luza-
roan inda'ak aunditu ala, gogor eta dunbatsu gora
botatzen du: au ala dalarik, A pertzean ura irakindu




zagun: luriña,
tutu bidez D-tik
batean sartu ta
k, bere ziri L-kin
batean ezke'al-
deratzen du: k,
D bitartea bete-

tzean, luriña B-tik sartzen da ta k eskubiratzen du
bere ardatza edo ziri L-rekin batean: ziria eskubira-
tzean k D bidarteko luriña D'-tik igesi dabil, eta L
ezke'alderatzean K B bitartekoa B'-tik: artarako B' ta
D' iges-tzuloak at aldera daude: ta B ta D sar-zuloak
ba'run aldera.

L-k, ezker-eskubira ibiltzean, M beso ta N ukabil
bidez, G gurpila igitzen du eta onela oletan igiketa
asten da.

G gurpilaren igiketa asi ezkerro, beste gurpil geiago igitxea, oso eresa da. G-tik ardartz luze batez erantsita



dauden G'' ta G''' , G-rekin batean dabilta ta era berean: G' -ere nafuzko lokari bidez edo kate bidez G-bezela dabil; bañan G'' -ri bezela lokari edo



katea guruzten bazaio beste aldera ibiliko da.

Gurpil geiago edo gutxiago jari bearean, ur ugariago edo gutxiago bear da irakiñazteko, su geiago edo gutxiago izan besterik ez dago.

Gurpil oiek gañean ortzadun daudela erasten dira batzuetan eta lokari edo kate gabe igitza alderatzen da:



baita ere onela



A-ko eraz, oletako gurpilak erabili ta biurtzen dira:

B-ko » , ontziak,

D- » » , sugurdiak.

peña artu zagon edo
ni-goizko ari estaldu
du dezagun
rizko ari ori,
obe; indaia
biziari.



(A): A ori bur-
batez biribil-
(B): burni-go-


zenbat eta me ta luzegoa izan,
asko aunditzen bai - dio burni

Gurpil bat G. B-bezelako pezez inguratu dezagun,
baten aria, aldamenekoarenari erantsi edo lotuaz; guz-
tia burni bizi bat egiten da.




Lengo G gurrila bezela ibai baten ur bidez
igitzen ba-degu, D, ere igituko da ta indar
aundiko burni bizi egiten da.

D tutuari beste tutu uts bat erasten badiogu
L berak ere peñ burni goñ ariz bilduak ditula,




L ere burni
bizi dago;
ta geldirik
aren tximist
indaia dau-
ka ta D-tik
ari bat (m)
eta L - tik
beste bat (n)



atereaz, nora-
nai emateko
indaia ba-
degu.

Naiz bertan
naiz uruti bes-

te *divinos* edo indarkin berdin bat jañi besterik ez
degu: m ta n ari bidez, L biziastan bada G igitzen eta
onen ardatz eta gurril bidez, beste gurril asko, len



esan dan
bezela ig-
itzendira.

—¿Uller-
tu al de-
zute?

(Zion gero irakasleak).

—Bai, Jauna, bai ta eskefik asko.

—Ez da zeri; orain garbi adirazten ditugu auferapen oiek, bañan berak asmatu arte... izenbat lan eta buruauste gogoñak izan dituzten Wat, Stephenson, Graham eta beste jakintsu askok!

Dana dala, olkintza guztiz auferatua dago eta gure Euskal-erian bear aña ta geiago dagola esan genezake.

—Ta ¿noiz asiko gera olak ikusten?

—Jaungoikoa lagun degula, biar bertan: gaur, lruña, al ezkeru, ikusiko degu ta biar Tolosa'n gera; ta an, asko ikasi genezake.

Ontan lruña'ra oraindik euria ari zala, iritxi ziran: bazkaldu zuten eta bazkalondoan, zerbait atertu zitzaielakoan, uri txukun eta polita nai bezela ta pozik ikusi zuten: bai ta ere Txadon nagusi ta beste Eliz eder batzuek; Sarasate, Loretegi ta Takonera'ko ibiltegi; aldundi eta Erabakitza'ko Jauregi ospetsu ta galantak; beste etxe ta kañika txukun eta egokiak eta azkenean uri inguruetako zumardi eder eta Aga-ibai aldeko ibar polita.

Zerbait nekatuak zeudela ta ufengo goizean, goiz aldendu bear zutelakoan, laster apaldu ta oieratu ziran.

OLKINTZA - IRUÑA'TIK TOLOSARA

GOIZEKO zazpiretan eta Iruñako jai ospetsuak utzita, Plazaola'ko geltokian zeuden gure mutilak: Leiza'rako txartelak artu zituzten eta sugurdi bidea artu ala, Iruña'ko zelaia utzirik mendi tartera sartu ziran.

Laster eta gure mendi orlegitsuén edertasuna befiro ikusiaz, Irurzun eñi zabalduara iritxi ziran. Irurzun'go geltokitik, ezkeréan dagon Bañanka ibaia zerbait igari ta gero «Bi aizpak» deitzen diran bi arkaitz aldamentik eta Irurzun ibai goruntz ibili ziran, mendi-zulo bidea iraganaz eta Lekunbeñi'ko zelai goitiara igoaz.

Lekunbeñi, zelai zabal eta aizeztuan dago, Mikel Deunaren mendi tontoña ezker aldean dula, baita ere Euzkal-eñiko Zaindari dan Mikel Deuna'ren Txadon agurgari aldeko bide egokiena daukala.

Bide zabaleko bi aldetara etxe batzuek eta eskubi aldera geienak ditula, ar luze bat dirudi; udaran giro atsegiña izaten du, eta udara bitartean sendi aberatz asko bertan egoten dira ta artarako ostatu on, etxe aundi ta Jauregi edeñak daude.

Lekunbeñi'tik irten da, oraindik gorago igo bear eta Uizi'ko mendi-zulo luzea iraganaz, Leiza'ko eñi gañean azaltzen da sugurdia; bañan eñiko geltokira jetxi arte, luzaroan baso tartean ibili bear izaten du.

Eta ¡bai ikusgaría dala Leiza! Kabi zabal eta zakon batean egon aŕen, inguruetako mendi tontor borobil eta zuaitsuak eta nunai eta ugari dauden baseŕiak asko edertzen dute: berez ere, ba-ditu eŕi aundi oŕek Eliz aundi ta ikusgarí bat, pelota-kirol-zei zabala, Udal-etxe beŕi ta egokia, Baleztena'taŕen jauregi galanta ta abar.

Eŕi ontatik Andoaín'era jetxi ta Tolosa'ra iritxi litezken gure mutilak: bañan zuzen zuzen eta lasai bi gurtariñetan eldu nai izan zuten eta etziran damutu; lenbizi, bide txukuna dagolako ta gañera bide ortan ikusgai guztiz alai ta polítak daudelako.

Leiza'tik irten ala, Urto'n (Gipuzkoako mugan) bide aldaketa igafi zuten mutilak: Napaŕo aldeko bi-deak onak izan aŕen, ez dira Gipuzko aldekoak aña: oiek, askoz zabal, berdín eta obetogo zainduak baí-dira. Au igartzeko, Urto auŕeko zubi txikitik atze alde ta auŕera begiratu besterik ez dago.

Urto'tik jetxi ta laster, Beraztegi'ko eŕi guztia, bat batean eta ibar zakonean, Egüeritako jaiotzen antzean banakatua ikusten da: beraseago jetxi ala, bi eŕi txiki agertzen dira; Eldua bat eta Elduaien bestea; bigaŕen eŕitxo au mendi magaletik ibaira jetxi naiean dagola dirudi; gero, Beŕobi, bideak erdibitzen dun eŕia, ta inguruetan baseŕi eder eta ugariak ditula; eskubi aldeko baseŕiak, ugarigoak dira eguzkiak geiago berotzen ditulako: ezker aldekoak beŕiz, ez ainbeste.

Beŕobi'tik bera asten dira Tolosa'ko ola aberatz eta ospetsuak: andik auŕera, ikusi litezke ¡ta bai ugaril Tolosa'ko iru ibai ta eŕeka batzuetan dauden afizko ur-zearle aundiak eta berengandik datozen udazka luze ta zubi-antzekoak: oiek dakarzkíten ur bidez igi-

tzen diran biurkin izugarri ta galantak eta biurkin ugari oien eztaikitzat dauden etxe eder eta aundiak.

Nundik-nai begiratu ezkeru eta leño luze ta ugariak diruditela, tantai goiti ta zuzenak burui-ariz apainduak ikusten dira: ta ¿zertarako dira? Oletara tximist-indara dakarten tresnak. Ta...

—¿Zer dira menditik bera datozen tutu luze oiek? (Irakasleari itza kendurik galdetu zun mutil batek).

—¿Tutu oiek? Mendi gañeko iturietatik ura dakarten eta indara ematen duten odiak.

—Ta ain estua izan da, zer lan egin lezake oletako batek?

—Asko ta zuek uste dezuten baño geiago: adizaidazute. Ordu bakoitzak irurogei zati ditu (60 iroiren): iroiren bakoitzak beste irurogei zatitxo (60 iroireki): iroireki batean eta neurkin bateraño goruntz, txopiñerdi bat ur igoazten dun indara kilogrametro (astaneikintza) deitzen da ta zaldi batek irurogei ta amasei astaneikintz jaso lezazke: onela, odi batek irureun txopiñerdi ur iroireki bakoitzean ba-dakarzki eta neurkin batetik bera ura eroritzen dala ta beti indar erdia galtzen dalako, bi zaldien indara ba-du: bi neurkiñetik eroriaz, lau zaldiena; irutik, seiena ta abar: ta odia, larogei neurkiñez gora dagola ta txut-txutik eziñez, erdi etzana dagolako indar asko galtzen ba-du ere, larogei zaldien indarakin dator eta onelako indar bidez ola aundi bat igitu liteke.

—Ta, erota bat ikusi bear gendula esan ziguzun atzo: ¿ikusiko al degu?

—Bai, ta laster ere. Orain Beotibar'en gaude; Be-launtza'ko erota zará bertan dago ta or, iñun baño erezagor ikusiko degu.

Ta esan bezela, erota aurrean gelditu ta sartu: mutilen asmoa jakin ala, erotariak erotapera jetxirazi zitun eta andik ondo ikusi zituzten gure mutilak, uraren jesketa ta biurkiñen igikera.

Pozik eta erotariari ezkerak emanaz, bere gurtariñetara beriz sartuta, Tolosa'ra lbara'tik eldu ziran, ango edertasun, etxadi txukun, zumardi eder ta itzaltzu, eta uri aundienetakoen antzera, an zebiltzan gurdi, gurtarin, berbil eta tximist-gurdiak ikusirik arituaz.

—Bañan ibai benetan edera dala Tolosat (zion batek).

—Edera dala, diozu? (zerantzun irakasleak). Ludi guztiko ederenetakoa! ta mendi oietatik, begiratuaz ezin edera goa litekenat Batzuek diotenez, Jaungoikoa donokian doaitsu dago, ta ala ere, egunero ta eguzkiak txoko polit au dizdiratzen dunean, pitin bat, Jaunak Tolosa aldera begiratzen du; Berak egin zun txoko kutuna gogoz ikusi, pozik atsegindu ta iripar gosoa dakerkiola, beñero Bere eginkizunetan jarduten omen du.

—Ederki, Jauna, txit ederkil (1)

(1) Len izan liteke Jaunak oiturn ori izatea: orain beñiz, erderazko izkera sartu ta itz zalar batzuek eta oien gañera birau zikin eta ikaragafiak altzen diren ezkerotzik, ez dakit, ez dakit: Jaunak ludiko edertasuna baño gelago maite du gure biotzen garbitasuna... ta bildur nago Jaunak oiturn ori utzi ete dun edo...

OLKINTZA - TOLOSA'N

Gure irakasle ta mutilak, ostatu eder batean ongi bazkaldu ta gero, eři guztia ikusi nai zuten: bañan lenbizi, an maikide zegon bati irakasleak galdetu nai izan zizkion Tolosa'ko beři batzuek. Ta maikideak onela erantzun zion:


«Beste eři geinetakoak ez bezela, Tolosa'ak, goizetik aratzalderaño txingufiak janari bila ta erleak lilietatik ezlia etxeratu nai bezela, lasterka beti ibiliko zaizkizue: emen ez da bizi alpeřik; ta aurzai ta ume kozkořak baizik ez dituzute ikusiko, goiz, eguerdi ta aratzaldean besterik; emengoak, lanik gabeko gudari-rik ez dute nai; naiago dute beren oletako, zenbat labe gorietatik kea atzaltzen eta lañuetaraño nola igotzen dan ikusi: «itz gutxi ta eginiz asko» dirudi dala beren ikuřitza. Bakoitzak Tolosan bere lanari gogoz ekiten dio ta ořegatik Tolosa'ak ondo bizi dira.

Bein batean eta oraindik urte gutxi dirala, Madriletatik zaldun aberatz bat etoři zan onera: gizon ořek, bazkalondoa lasai igaro nai ta Akeita-etxe onena nun zegon galdetu zun, eta Zei-zařeko «Lagun-Batzařa» zala aitu zunean ara jua zan... eta gizon ařen ařita-suna! bi edo iru zaldun banakatuak besterik etzitun ikusi ta banaka oiek iruretarako aldendu ziran.



TOLOSA

(Izazkun mendi maldaretik)



Ezin besterik egiñez, moñoi edo ekurlariarekin itzegiten asi ta galdetu zion:

—Bañan Tolosa'n zaldun eta gizon aberatzik ez al da bizi?

—Bai, Jauna, bai ta ugari.

—Ta ¿zergatik ez da iñor emen ikusten?

—Beren ola ta lantegietara juaten diralako ta sei t'erdi edo zazpiak arte ez dezu iñor ikusiko emen.

—Bai arigarria dala! ta ez al da emen iñoiz jokutzen?

—Gau aldian bai, bañan egunez guztiak lanean dabiltza. Gertaera onek Tolosa'en oitura adiraziko dizue; ta olkintza ikasi nai dezuten ezkerro, olak ikustera baño lenago, zuazte Kalasanz-dafetako Ikastetxera eta an asko ikusi ta ikasiko dezute: ori da nere iritzia.»

—Ta ona (erantzun zion irakasleak) eta eskefiskasko.

Esan da egin: gure irakasle ta mutilak Kalasanz' dafetako Ikastetxera jua ziran eta beren asmoak adirazi ala, bertako apaizak maitetsu ta gogoz lagunduaz, ango gauza guztiak erakutsi zizkiezten.

«Olkintz erakusketa» dio gela aundi batean sañerako ateak eta ¡bai asko ikusteko gai daudela gela artako ezker-eskubi ta erdian!

An ikusi liteke Gipuzkoa guztiko olkintz geiena; baita ere beste alderdi batzuetako olkintza ere: lenbizi gaiak, gero gaien biurketak ta azkenean egindako mueta salgaiak.

Era berean, lanen asiera ere ikusi ta ikasi liteke: artarako naiko tximist-indar ba-du gela artako gurrpilkin batek eta indar onen bidez dabil, biurkin eta guzti, zur eta zurezko olak, moztu, ebaki, legundu ta nola-

nai eratzeko aroztegia. Baita ere, tximist-gurdi bat, zelai, zubi, mendi agirian eta mendi zulo tartean ibiltzen da; egazkin bat gañera, ta aizetegian aruntz-onuntz dabilela ikusten da (1).

Lanen asiera ikusi ala, Elosegi'taŕen erakusketara aldatu ziran eta an ikusi zuten zertik, nola ta ze biurketa bidez txapelak datozen: lenbizi gai dan artilea, berez zikiña; gero garbia, geroztik amukoa: au asiatu ta neuritzen da, biurkin polit batez txapel bakoitzak bear aña jaŕiaz; geiegiz alpeŕik galdu ez dedin eta gutxiegi txapela osatu gabe arkitu ez dedin: amuko arildua gero eta atzetik ariaren eunketa (ortarako bear dan jostofazketa noiznai olan erakusten dule Elosegi'taŕ anai maitetsuak): Gero seago txapela bildu, josi, ta margozen da, urĕnean azĭindu ta legundu: biurketa bakoitzak bere biurkin egokia bear du. Ikusgarĭa da noski Elosegi'taŕen Txapel-ola! Gero dator D'Onsinage'ren ola-erakusketa. Bere gaiak dira artilea ta somofo batzuen arizko estalkia *zirikoa* deritzana.

Artĭla ta zirikoa amukoan dirala naztu litezke merkeago edo gareztiago saltzeko eran; amuko naztu oiek arildu lenbizi ta eunduaz gero, oial arin ariñak egiñak azaltzen dira ta oso legun eta biguñak (jantzi oso bat patrikara batean sartu litekerañokoak): oial arin oiek beste oialak bezela ebaki ta josten dira.

Bi alde txar difuzte jantzi oiek: lenbizi, gareztiak izatea, ta gero, txinpar batek ikutu ezkerro laster eta guztiz eŕetzen dirala; ala ere, ikusgarĭ ta edeŕak dira.

Subijana'taŕen ola-erakusketa. Eun me eta lodiak

(1) Gela luzatu ta gauzak aldatu bear izan ziran eta ordu ezkeroztik tximist-gurdi ta egazkiña geldĭ daude... gnoiz arte?

dira ola ontako gaiak: gai olek, margo politez edo edo egalun apañez edertzen dira; ta lan ugari ta ikuskariak daude emen: ola Bilauna'n dago.

Labayen eta Laborde'taŕen ola-erakusketa. Ola ontako gaiak dira: ixerri, basurde, zaldi ta beste abereen ile latzak; baita ere, zur eta ola gogorak: olek bear bezela ebaki, legundu ta zulatu bear izaten dituzte; ta gero ileak garbitu eta sortaka zuloetan sartu; onela egiten dira margolarien zurdaki ta soñekoak garbitzeko igurkiak eta abar.

Ontan gauzak adirazirik zebilen Kalasanz-daŕetako Abak, Irakasle Jaunari galdetu zion:

—Zenbat egun igaro nai dituzute Tolosa'n?

—Bear ditugun guztietan emen irauteko asmoa degu.

—Orduan eta ondo ba'dirudizu, gaur ikusi ta ikasia obego ulertzeko, Elosegi, D'Onsinage ta Labayen daŕen oletara lagunduko dizuet: eta biar zortziretako atozte beŕiz.

—Bai, Jauna bai; ta ezkerrik asko.

Eta esan ala Irakasle Jaun eta bere ikasleai Kalasanz'daŕak lagundu zien eta iru olak erakutsiazi ere bai.

Iru oletan maitetsu artuak eta lasterka aŕen ongi erakutsiaziak izan zirala esan beaŕrik ez dago.

¿Ola nagusi aietatik zein ukatu ta alako mutil sail edeŕari ta ain jakin-zalea zanari?

Mutilak poz pozik atera ziran ikertu zituzten oletatik: sei t'erdiak aldean Tolosa'ko inguru politak ikusiaz ondo jostatu ziran eta zortziretako etxeratu ere bai.

OLKINTZA - TOLOSA'N

LENGO egunean esan bezela, zortziretako Kala-sanz-dafenean zeuden gure mutilak: Ikastetxe-koak ere itxoiten zeuden eta alkar maitetsu agurtu ta gero, lanean jardun ziran.

Atzo ikusi gendunez gañera, gaur beste oletako biurketa batzuek ikusiko ditugu. Asi gaitezen.

Paper ola erakusketak. Iru daude emen, bata, Ur-goiti Jauna burutzat daukan Paper-ol batzarekoa; beste au Soto ta Tuduri lagundiarena: ta irugañena, Arkaute ta Lagundiak jaña.

Olkintz onen gaiak dira: eun eta oial zañak, zur eta olak, bai ta ere lastoa.

Oial eta eun zañak tutu aundi batean luñin irakin bidez busti ta usteltzen dia, tutua jira-biraka dabilen bitartean; gero *Kloro* deritzan autz eretzale bidez txetu ta urtsu jartzen dira eta azkenerako ore txurixurian biurtuak azaltzen zaizkigu.

Zur eta olak txetzeko beriz, ona emen biurkin txiki ta polit bat: bafenen tutu gogor eta latza dauka: ikusi ta ikutu zazute. Tutu onen ondoren eta zakon ontan makil puska oiek sartu, ezkerreko burni onez bultza ta gurpil aundi onekin batean erantsia dagon tutua igitu dezagun; ara nola tutu latzak izpiak kenduaz metzen

ditun makilak eta zur-autza bera eroritzen dan. Jakiña, oletako ta egiazko biurkiñak aundigoak dirala eta txotx oien orde zuaitz oin lodi ta luzeak erabiltzen dituztela.

Era berean lastoa ere ta askoz eñesago txetzen dala.

Zur-autz eta lasto txetua, eun eta oial puzkak bezela, ur garatzez erabili ta lekedatu ezkeroz, neuriz ureztuaz biurkiñetako burni arizko sareetan poliki poliki botatzen da: aietan isuriaz dabilen bitartean, bero bidez lurña uzten du eta legortu ta gogortuaz papera azaltzen da: ta ara nola, len biurkiñaren asieran aia zirudin ur txuria, orain paper txuri ta leguna, tutuetan bildua agertzen dan!

Gañerako lanak, papera labaindu, lerotu, bildu ta abar lan oso eñesak dira ta gaur bertan ikusiko ditugu.

Papera, loditu ta asko lekedatzen ba'da asko gortzen da ta ingora daukagu; «atozte ta ikusi zenbat kutx eta politak egiten diran ingor bidez» ta au esanez, Kalasanz'dar Abak, Limousin'dařen ingor-erakusketara eraman zitun mutilak eta oiek afituta gelditu ziran, ango apala ingor kutxaz betea ikusirik: ara saltegi merke bat jartzeko era egokia: apalak jari ta zurezko kutxak egiteko diru asko bear da; bañan ingorezkoak oso merke ateratzen dira.

Orain, jaunak, atzo bezela bi ola ikusi nai badituzte, atozte nerekin.

Irakasle ta mutilak, pozik artaratuaz, Kalasanz'dar Abarekin batean, Zumardi aundi aldera juan ziran; Zubizarètako aldamenean dagon olan ikusi zuten eun eta oial zarez orea, len esan bezela, egiten (arizko

paper asko egiten bai-dute): zur-autzik ez dute egiten, Noruega'tik, ainbeste baso ditun erkiaitk merkeago ekartzen dute ta. Paper-albainketa ere an dago.

Gero Zumardi aundian bertan dagon beste olara juan ziran eta an papera egiten txit pozik ikusi zuten: gora igo ta an ikusi zuten nola papera lefotzen dan, ebaki ta ebaki ala bildu, idazki estalkiak nola egiten diran eta abar.

Mutilak pozik eta eskertsu ba-zebiltzan, bi ola aietako jabeak diran Aranburu, Limousin eta Raguan Jaunak maitetsu egon zirala esan bearik ez dago.

Andik, Igaralde'ra Limousin anaien Ingo'ola'ra eldu ziran. Guztia ondo ikusi zuten mutilak eta pozik eta bidez Zumardi txikia ere ikusiaz, sakabanakatu ziran, Kalasanz'dara bere etxera ta besteak ostafura; bañan beriz ta bazkalondoan ordu-biak aldean alkar-tzeko asmoan.



OLKINTZA - TOLOSA'N

ZINTZO zintzo ta esandako orduan Ikastetxera eldu ziran gure mutilak irakaslearekin batean eta etzuten itxoin bear izan, ordurako beren zai bai-zegon Kalasanz'da'etako Aba, Alkar maitetsu agurtu ala, Kalasanz'da'ra gauzak adirazten asi zan eta onela zion:

Atzo ta gaur goizean ikasi ditugun olkintzak eta biar adiraziko diran beste batzuek, lugintzatik dakarzikite gaiak; gaur ikasiko degunak ere bai; meatz-olkintzak lufetik ateratzen du gaia, lurpean bai-daude meatzak; ala ere ainbesterañoko olkintza danez, bera bakarik aitatuko degu a'atزالde ontan.

U're, zilar eta beste meatz gareztiak ez dira Euskal-erian arkitzen: egia esateko, emen bertan Tolosa'n eta Irura aldeko bidean u're ta zilara bazegola ta iru aldiz lanari ekin zioten; bañan alpe'rik: atera zuten u're ta zilarak etziran langileen sariak ordaintzeko eta lanak utzi bear izan zituzten.

Beste meatz batzuek arkitu dira an ta emen; olkintzarako ain beara dan a'rikatza Goiko Napa'roan eta Azpeiti aldean ere bai; bañan oso gutxi. Argaimela ere Onda'ribiko Jaizkibel mendipean ba-dagola diote; bañan ¿nork daki egia izango dan? Zarautz aldean berun meatza arkitu da, ta beruna ona dirudi; ala ere,

Ingalan'darak erosi nai izan ez duten ezkerro ez da onuratsua izango noski.

Burni-gorizko meatz bat dago Ormaiztegi'n; andik asko ez afen, urtero zerbait ateratzen da, ta noizean bein Pasai zabaleko kai ta nasetan, lur ori-goritsu pilak ikusiko dituzute: lur pila oiek, burni-gorizko ganga edo meatz luřak dira.

Burni meatzak beriz, Bera aldean batzuek eta Somořostro aldean ugari daude: meatz oietatik datorkio Bizkaia'ri bere aberastasun aundiena ta Gipuzkoari olkintz gai izugaria; ta oraindik, Jauna lagun dala, etoriko zaizkien aberaztasunak! Urtero oneika oneiastakiak atera afen, eun urte baru beste ainbeste ta geiago ateratzeko gaia badago Somořostro'ko mendi luze ortan; mendiak amabost anei-neurkin luzean, bost zabalean eta bosteun neurkin goitian bai-ditu ta mendipea ere burni meatzez betea dago.

Gañera, burni meatz ori bezelakorik ez da ludi guztian arkitu; ain ona dator Bizkai aldeko burnia.

Burni meatzak, luřa utzi ta urtzeko, bero izugaria bear du (1.700 maila ta geiagokoa); eta askoetan ařikatzaren bidez, ezin bear bezela berotu ta *kok-ikatz*ez berotu beara da.

Labe gori batean kok-ikatzu sutu ta gañean lendik jari zaion meatza, luřa goian gelditzen dala burnia urtu ta bera josten da: gero, burni urtua labepeko ertzetik ibaitxo baten antzean atera ala, ondarpean irikitako ontzi itxurezkoetan sartu ta oztuaz, nai dan eran eta itxurean atera liteke, naiz ate aundiak, naiz iltze txikiak dagizkila: geienetan, burni mokor aundi edo txiki, bañan eřes ebaki litezkenetan, biurtzen da, beste burni-ola edo sutegietara eramateko.

Burnia, bi eraz altzairutu leike: urtutzen dan bitartean, ikatzlaspela (eundik batetik 1 %... eundik irura 3 %) burniari erantsiaz; baita ere, burnia gori-gori dagola, ibai uretan sartu-ateriaz. Tolosan izkilo-olak zeudenean, emengo altzairua guztiz izendua omen zan, Oria ibaiko urak artarako egokiak ziralako. «Ura nolakoa, altzairu alakoa» esaten denez.

Burni ta altzairua nai dan bezela, neurizko zulo-
txoetan eta puska aundi eta txikietan bear ala banatuaz, edozer gauzetako gaiak eskuratzen dira.

Ona emen, Eibar'ko izkilo-erakusketa batzuek: lenbiziko apal ontan dauden altzairu puskak, ezertarako ez dirala edozeñek esan eta ibaira botako lituke; baina, izkiloak egiten ikusi dunak, puzka oiek bildu, alkartu ta iltze-biuriez josita, lau ogerleko izkilo politak edo eiztarientzako izkilo galant eta gareztiak egingo lituke.

Begira, orain, Soraluze'ko erakusketa: or dauzkazute giltz egoki ta politak, beren kabi politagoak eta krisketa ugari, ate aundi ta txikiak itxi ta irikitzeko egokiak:

¿Zeñek esan, len alako giltz aundiak bear zirala ta orain giltz txiki oiek len añako lana ta geiagokoa dagitela? Oria or, beste apal bat burniz betea: or topatuko dituzute lugintzarako bear diran tresna getenak; atxur, bostortz, lai, joñail, golde ta abar: len maluka joaz eta izardi patsetan sutegileak egiten zituztenak, orain oletan, lur zulo egoki bidez eres egiten dira.

Ara an, Goñi anaien iltze-biuri erakusketa: guazen eta ikusi dezagun: ona emen, iltze-biuri gogorak, beren biur-eme, buru borobil eta laurkituak dituztela, abek eta kako-burni oiek burni bideetako sugurdien-

tzako izaten dira: burni - begi oiek gurrilak ondo erasteko, kako aiek urutizkin eta urutidazkiñetako tantaletatik burni ariak txintxilikatzeke ta abar. Iltze-biuri-ola onek, jafi beria izan aŕen, azkeneko gudate ontan lan ugari ta onuratsua egin du:

Bañan, adiraztaldia au luzegia egingo zaizute noski ta utzi bearko det, nekatuak egongo zerate ta...»

—Ez, Jauna, ez: pozik entzuten dizugu ta jardun jardun.

Ala ba-da: bi itz laburtxoetan esango dizuet gafiñerakoa.

Burni-sare erakusketa. Len Perot deritzan Jaunak eta orain, bera aldendu dala ta bere lagun batzuek artu-dute ola ori.

Ona emen burni - ori edera, urezkoa dirudina. Burni-gofia berun edo beste meatz (Pl. Al. St.... eta abar) batzuekin naztuta egiten da. Burni-ori au, eŕes ariltzen da: ta aritu ezkeru eundu: oŕa nola sortzen diran, atzo aitaturako burni-sareak, iriñak nai ala txetzekoak eta abar.

Era berean eta burni legun ari lodigoaz, emengo Noruega'taŕen olan eta erakutsi nai ez duten biurkiñez peŕatzeko iltze buru aundikoak egiten dira.

Beste iltzeak beriz oso poliki egiten dira ta laster eta pozik ikusiko dituzute gaur bertan.

Burnia lenbizi aritzen da: ari ori, lodi edo mea, nai bezela, egiten da: aria gero biurkin batean sartuazten da, ta biurkiñak berak, lenbizi ta neuriz aria moztu, buruan joaz, zapaldu, aldeetan koskak egin eta ertzean zoŕozten du, ta dana batean egin da gero, biurkiña berez irikitzen da; iltze egiña erori ta biur-

kiñak izterakoan beste ari puzka artu ebaki ta abar egiñez jarduten du.

Oso pozik, iltze egintza ori. Irazuzta Jaunaren ola berian ikusi izan det; bañan bere ola uruti samar dago ta beste bat erakutsiko dizuet.

Ta guazen iru ola ikustera; bertan dauzkagu ta lenbailen ikusi bear ditugu.

Eta esan bezela, goizean atera ziranak berak, jun ziran, lenbizi Teleria'tar Joseba Mikel'en burni-urketara: gure ikerleen zai zeudela zirudin ola artakoak.

Mutilak sartu ala bi labetatik igesi zijuazen burni ibaiak gori gori ta lurondarez egindako ontzi zuloetan sartzen ikusi zituzten eta bero aundia egon afea zer azaltzen zan ikusi naiez, barundu ziran eta lendik lurperatu zuten burni urtua ozluta egongo zalakoan, eztalkiak kendu zituzten eta gure mutilen aritasuna, emen gurutzeak, or tutuak, an gurpil-ustaiak, arago sukalde-olak, onerago labe-estalkiak eta abar ikusi zituztenean!

Teleria'netik Goñi'ñenera eldu ziran eta an iltze biurriak eta ikusi zituzten bañan lasterka: ango dunbada gogorak mutil batzuek txorabiatzen zitun eta...

Ori bera, bañan ez ainbeste, gertatu zitzairen, Basagoitia'ren iltze ola ikustean: ala ere, guztia ondo ikusi zuten.

Pozik mutilak eta oraindik zerbait ikusi lezaketela ta, liaramendiko Gaiso ta beartzutegira juan ziran; etxe galant eta eder ura ikusi zuten; andik bertatik, Tolosa'ko auso politak, Txarama, Amorotz, Otzarain, Ilibi ta Izarkun ikusi zituzten eta urango goizeko zortziretako alkartzeko asmoan, banakatu ta etxeratu ziran.

OLKINTZA - TOLOSA'N

IRAKASLE Jauna ta mutilak, zortziretan Ikastetxera elduak ziran eta garaiz azaldu zitzaien Kalasanz' dar Abari, lenbizi guztiak bera maitetsu agurtu ta gero, Irakasleak galdetu zion:

—Gaur, emengo erakusketak ikusi ta gero, Ikastetxeko Buru dan Aba Jauna agurtu al genezake? Zuri ta berari ere ezkerak eman nai dizkizuegu ta.

—Gure buru dagon Aba Jauna agurtu ta berari ezkerak ematea txit ondo dirudit; baina ez dezute neri ezer ezkertu bearik. — Mutilai erakusteko eskeñiak gaude, ta berai lagunduaz, Jaungoikoari emandako itza egiztu ala, gure eginbearak pozik betetzen ditugu. Buru dan Abari zuen asmoak adiraziko dizkiot eta bera etori bitartean zerbait ikasi dezagun.

Ta esan ala, lanean asi ta Kalasanz' dar Abak zion: Ona emen, Labaien eta Laborde'taŕen beste erakusketak: emen ikusiko dituzute lñauterietan jostalutzat erabiltzen diran *konfeti* edo paper-puskak, baita galar-tzu luzeak ere; oiek, paperak margoztu ta nai ala ebakiaz, eŕes egiten dira: beste txartel, iker-txartel eta iragarki oiek ez ain eŕes, azkeneko oiek beñnepein lan asko ematen dute ta.

Orain lokari-erakusteta ikusiko degu. Gure basefi-

tañak artilez, beren abarka ta mantañak lotzeko lokariak egiten dituzte: bañan lokari oiek, lasai ta biguñegiak dira indar egiteko ta emengo olan zamukazkoak egiten dituzte... Ontan, Ikastetxeko Nagusi Jauna azaldu zan eta guztiak alkar eta maitetsu agurtuaz, Buru segon Jaunak bere menpekoari galdetu zion.

—Ta, ¿zenbat ikusi dezute, asko noski?

—Bai, Jauna; ia geiena ikusia daukagu; janari oiek nola irauteko zaitzen diran erakustea ez ba-da, gañerakoa ikasia dago.

—Ta ori, erakutsi gabe utzi zenezake: ori, noiz eta nunai ikusten dana da ta. Emaitzatzu mutilak or ezker aldean irikita utzi dedan erakusketara, or zerbait ikusiko dute ta, Gero or dagona zer dan esango didazute. Kalasanz'dar Abak eraman zitun mutilak zer izan liteken igariaz, bañan ezer esan gabe.

¿Zer zegon an? laster asmatu zuten guztiak. Jategiko mai-buruan Irakasle Jaun eta Kalasanz'dar Abarentzat eta esker-eskubitakoetan, mutilentzat urdai-azpiko-puska bafenean duten opiltxoak eta beste goso ugari zeuden eta ardo ona zeukan onil aunditxo bat.

Etzuten mutilak betik galdu: ¡bai zera! Etzan ere janaririk maiean gelditu: eginbear guztietan gai onak ziran mutil aiek eta ordukoan etziran gaizki ibili.

Orduan bertan iritxi zan Ikastetxeko Buru Jauna eta iripartsu esan zien:

«Jaia asi dezuten ezker, egun guztirako luzatu dezala ezkatuko nioke zuen Irakasle Jaun onari. ¿Nai-ko al dezute?»

—Ez dago eskatu bearik, Jauna zion Irakasleak: zure iritzia agindutzat artzen degu ta gaurko eguna jaia izango da guretzat. Bañan nik ere, ta asketsi

geiegi ausartzen ba-naiz, zu ta gure irakasle maite ta jakintzu au, gurekin batean bazkaltzera etortzeko eskatuko nizuke.

—Eskeñik asko, Jauna; ezin nezake nere egin beaia utzi; bañan nere ta bere izenean Aba onek juañ nai ba'lu, bai, zuekin batean bazkaldu lezake.

—Eta ¿zuk (beste Abari irakasleak galdetu zion) naiko al dezu?

—Nagusiaren baimena dedan ezkeru, bai, Jauna; ta pozik. Mutil guztiak txaloka beren poza agertu zuten eta altxa ta ezkeñak Nagusi Jaunari emanek, lana alde batera utzita jostatzera juañ ziran. ¿Nora?

—Orain (zion irakasleak Abafi) zu izango zera gure jabe; nai dezuna agindu.

—Beste ola batzuek ikusi naiko ba-dituzute...

—Ez, ez: naikoak ikusi ditugu: ta ¿zenbat ola izango dira Tolosa'n?

—Nere ustez eta aundi ta txiki tartean, ogeita amalau.

—Ta ¿nundik, eria ta ola guzti edo geienak ikusi genezazke?

—An auean daukagun Izazkun'go mendi artatik; bañan ¿ez ote dago uruti samar?

—Neretzat ez: mutilenzat ala ba'lego...

—Ez Jauna, ez (erantzun zioten oiek): ta pozik igoko gera.

—¡Aupa, bada, mutilak: giro ona degu ta ¡gora! lenbailen! Au Kalasanz'dar Abak esan ala, ibiltzen asi ziran Zerkausi kañikatik, bidez angu estalpe egokia ikusirik; ta Napaño-aldeko zubi zabala iragan ondoren mendi gora igotzen asi ziran, ta ¡bai ederki ta bat batean eria guztia ikusten zala mendi magaletiki!

Orain bosten bat urte dirala, egin duten bide beña txukun eta egokia bai da; ta mutilak arin arin zebiltzala laster igo ziran mendi tontoreraño: bi irakasleak patxara ederean ibiliaz ordu erdi batean iritxi ziran.

Ama Miren'en txadontxo polit bat dago (Elosegi'tar aiton ospetsuak beritua) mendi tontor artan: txadontxoan sartu, ta Ama Miren'i beren otoitz samur eta laburak egin da gero, Tolosa ta inguruetako efi kozkor eta politak ikusten asi ziran.

Eskubi aldetik, Leaburu; mendi tontor batean; aldameneko mendi magalean, Belaunza: bi mendi oien bean, Ibaña, bere Eliz, jauregi baratz landaretsu ta guzti.

Ego aldetik, Blas Deuna ta an dagon Tolosako obitegia, Ilaramendi, Amorotz eta Ilibi.

Esker aldean eta mendi magaletan, Erika, Urkizu, Beñano ta Montezku auzoak.

Zeuden tokitik Uzturê aldera juan da, ipar aldean dauden Anoeta, Ernialde ta Irura ikusi zituzten gure bi irakasle ta mutilak.

Bost bide zabal ateratzen dira Tolosa'tik eta bostak oiez beteak daude; ta efi baruan ere beste batzuek ba-dira.

Jesteko garaia zala ta, lengo bidea utzita Uzturêko bidetik Mokoroa'taren garagardo olara jetxi ziran: etzegon ola artan nagusi ta semeak besterik: ala ere, nagusiak, lasterka aŕen ola erakutsi zlen; baita ere garagardo edeña, egari zeuden mutilai eman... eta ordañik gabe.

Andik, garaia zalakoan, guztiak ostatura lasterka iritxi ziran. ¡Gero arte!

OLKINTZA - TOLOSA'N

GOIZEAN, zerbait oi baño geiago jan eta edan aŕen, etzitzaien ezer ezagutu gure bi irakasle ta mutilai: ondo ta gogoz jan zuten guztiak.

Bazkari bitartean bi irakasleak, zer egin bearko zuten aratzalde luze artan igari naiez zeudela, Kalasanz'dar Abari, Andoain eŕira juatea eta bidez Fraisoro'ko Auŕetxe polita ikustea bururatu zitzaion.

—«Jun-etori atsegin bat egingo dezute; eta nere ustez, etzerate damutuko» (zion). ¿Bai al gera?

—Bai, Jauna: bai, ta zuk, nola ta noiz jua bear degun esan besterik ez dezu.

—Oraindik ez dute ordu biak jo: garaiz tximist gurdira elduko gera; ta jauŕera!

Oitura ona da, zintzo artutako asmoak lenbailen betetzea ta esan ala, guztiak tximist gurdira sartu ta patxara ederean Andoain eŕira irurak jo baño lenago eldu ziran: guztiak, bazkaria nunbait etzuten oraindik bear aña egosi, loale zeudela zirudin; gutxi itzezin zuten; bañan Andoain'era iristekoan bizkortu ziran.

Eliza lenbizi, olak gero (bañan baŕura sartu gabe), Leizaran eta Ori ibaien batza, eŕiko Etxe nagusia ta jauregi polit batzuek ikusi zituzten eta eŕi luze ta estu ura gora ta bera iraganaz, ordu osoa igaro zitzaien.

Beñero tximist-gurdia artuta, Bilauna aldera jetxi ziran; bidez zelai polit eta arduraz landuak, baita mendi borobil baten gañean banakatua dagon Aduna eria ikusi zituzten, beti ibai ertzetik zebiltzala, ta Portu'taŕen jauregi beñi aŕean jetxi ta eskubiko zubi galanta iraganaz, Portu'taŕen olara-sartu atera bat egin zuten; ola artan dago, Beljika-ko erakusketa ospetsuan azaldu zan paper-biurkin edeŕena, ta one-rako erosi ta lanean jaŕia dago; aundia da, izugaria ta lan asko egin lezakena: ogeita host onei-astaki ditun paper-zama egunez egin lezake: ura paper biurkiña! Orereta'ko bat bakarik da ori bañio aundigoa.

Ola artatik irten da, Zizurkil'ko bidea eskubian utzita eta burni bideko atze aldetik mendira igotzen asita, laster Gipuzkoa'ko Lugintz-Ikastetxe aŕean arkitu ziran: piska batean, ango zezen eta bei galantak, gure baseŕietako abelgoŕia ainbeste aunditu, mamiz bete ta edeŕtu dituztenak ikusi zituzten; bai ta ere etxe artan ikasleak egiten dituzten gazta, guri ospetsua ta abar.

Bañan Gazteiz'ko Lugintz-ikastetxea ondo ikusi zutela ta Umezurtz'en etxea ikusi naiean etoŕi zirala-koan, laster eta ezkertsu irten ziran eta beñero aŕizko maŕadi batetik goruntz ibili ta ikusi nai zuten etxera iritxi ziran.

¡Guztiz alaitsua ta ikusgaria da Ume-zurtz'en Etxea! Mendi magaleko koska agiri ta aizeztuan dago: txuri-txuri ta aundia da, aŕean zeŕ eder bat daukala: nundik nai mendi orlegitsuaz inguratua; be aldean eŕi guztia ibai ondorean luze luze ta alde batera ta bestera baso itzaltsu soro eder eta baratz ondo landuak ditula.

Etxe orēn egile jakintsua, atzeri ospetsuenetara, aietako gaiso ta beartsutegietan zeuden auferapen egokienak ikustera lendik juan zan: eta atzerian ikasi ta berak asmatu zunez egiña dago etxe ori: ta orain, ludiko sendagile erdaldun asko, bera ikusteko asmoan etoriak dira.

Bingen Deunaren alaba maitetsuak zaintzen dute; bear diran diruak beñiz, Gipuzkoa'ko Aldundi aberatzak ordaintzen du. ¿Nork ez dakizki Aldundi orēn almen eta asmo zintzoak? eta ¿nork ez, alako lekaime onen maitetasun bero ta egintz ospetsuak?

Oregatik etxe ortako egoki ta txukuntasuna aitatu beařik ez degu.

Bertan sartu ala, ango txuritasunak alaitzen zaitu; ormak, zapai ta oinpeak, iñudeen jantzi ta leikameen mantalak ere txuri-ixuriak dira.

Sartu ta eskubi aldean izkintzoki bat dirudin ontzi bat ikusten da; beraren oinpea, zama pitin baten bidez jetxi litekela dago; ta onela, gabez geienetan eta iñork ikusten ez dula, bateonbateg zeñ aldetik aũra uzten dunean, oinpea, aũfaren zamaz jesten da: au jestean, tximist-txiñin bat dunbatsu deitzen asten da ta aldame-nean gau ta egun zai dauden bi lekaimeetako batek, etofi ala aũra jasotzen du; ta bear ba'da garbitzen du; eta osasun onekoa balitz aũra, alde batera eramaten du; gaiso ba'lego beñiz beste gelara ta aur bakoitzari iñude bat ematen dio.

Bañan etxe ortako ikusgai izugarrena aur-zurtz oien ureztegia da: iñude bakoitzak, aũra besoetan jasoaz, nai ala ur bero edo otza botatzeko, bean dauden oiñolak txaunezkin batenak bezela bultzaka, ateratzen du, aũra iñoiz utzi beařik ez dula.

Aur bakoitzaren zeazka politik, bertan etzaten dan auraren izena ta kondaira adirazten dun idaztitxo bat oin aldean dauka: idaztitxo ontan agiri jariak daude, auraren etofera, bere gaitzak, zama (astero artutakoa), eta beste agergai asko.

Au ikusiaz, edozeñek, gure mutilen antzean, «Gipuzkoa'ko ume zurtzak aberatzen semeak bezin ondo aziak dirala» esan lezake. Ala ere, ama baten maite-tasun eta zainketa samura nork ordaintzen du?

Ume-zurtzen etxea ikusita gero, gure irakasle, ta mutilak menditik jetxi ta garaiz tximist-gurdira iritxi ziran eta Tolosa aldera befiro bidea artu zuten.

Laster, Laskibar'ko jauregi ta baseñi politik, Irura' ko eñi luzea ta Guadalupe ta Arkaute'taren eta lokañi-ola bidez ikusiaz Tolosa'ra eldu ziran; Kalasanz'daren lkastetxera joan da ango Aba maiteai agur maitetsu bat egin ziezten eta jagur Tolosa maiteai esanez, gure irakasle ta mutilak ostaturatu ziran.



OLKINTZA · TOLOSA'TIK BEASAIN'ERA

GURE irakasle ta mutilak zeuden ostatutik gelditokiraño ez dira eun neurkin izango ta lasai eta garaiz goizeko su-gurdia artzerako eldu ziran.

Su-gurdiratu ta gero, irakasleak mutilai bere asmoak adirazi nai izan zizkien eta onela itzegiten asi zan: Lenbizi Beasain'en geldituko gera: an, goizean al ba'gendu, Bultzi-ola ikusiko degu ta egüerdian, bazkaldu ta gero, Zumañaga aldera juango gera: ¿ondo al dirudizue?

—Bai, Jauna, bai (erantzun zioten mutilak).

Ontan Patxik, zutik jafi ta, itzegiteko asmoak igarilazi zitun.

—¿Zer nai zenduke esan, Patxi? (galdetu zion irakasleak).

—Beasain'en ikustera guazen lanak asmatuko nitukela.

—Su-gurdi bultziak noski: ¿ez ote? nik ere asmatuko nituke. Zerbait lotzatuta musugorri jafi zan Patxi, ta apal-apal erantzun zion:

—Enun ori esan nai, Jauna; bultzi oiek nola egin litezken igartzen nula baizik.

—Etzaitetz azaratu, maitea: samin izango litzaiket eta; ta ¿nola, uste dezu, bultzi oiek egiten dirala?

—Tolosa'n ikusi degunez, gurpilak bear dirala ta neuriz irikitako zuloetan altzairu guri ta urtua bota, ta oztutzean gurpilak agertuko zaizkigu: gero, zurezko olak, nai ta bear ala ebaki, bataf eta besteak alkar-tzeko bear diran iltze, iltze biuri eta burni eutsigileak ere, gurpilak bezela egin; guztia legundu ta puzkak bata besteari bear ala erantsi ta josi.

Ez dezu gaizki esan: bañan, ez uste, esan ala ain eres egiten dirala.

—Ba-dakit, bai: ta gurpilak beñepein, zama asko eraman eta indartsu ibili bear dutelako, guztiz oso ta txit sendoak izan bear dutela ta arduraz egiñak bear dirala.

—Ederki, Patxi: ta ain azkara zeranez, galdera bat egin nai dizut: Su-pin edo kañoiak ikusi dituzu; ¿ez da ala? ta ¿nola, uste dezu, egin eta zulatzen dirala?

Beregandu zan Patxi; luñera begira, ta ezpañak eskubiko bigarren beatzaz estuturik jafi zan: kopetilun luzaro samar egon zan... bañan noizbait, bekokia alaituaz, zion:

—Ona, nola: supinaren gañeko neuria dun zulo edo luñ egositako tutu uts bat egingo nuke: onen erdi-erdian, beste luñezko tutu sendo edo aga bat sartuko nuke ta bitarteko zulo utsa, altzairu urtuaz bete ta altzairua oztutzean luña, puzkatuaz, kendu ta azaltzen dan supina legundu besterik ez dago.

—Oñela supinak egin litezke; bañan elirake iñoiz ondo aterako: lenbizi, ezin da altzairua ondo zabal-tzen dan ikusi; ta gero, ¿nork erdiko aga edo ardatza ondo jafi? zuloa etzanda badago, ardatza erdi aldetik okertuko da; zutik ba'lego beriz, ondo jafi arien, altza-

iruak, erortzean, alderatu eta igo-aziko luke: ofegatik, beste era batean egiten dira. Ara, nola.

Supin neuriko zuloan, altzairu urtua arduraz botatzen da; ta ozlutzen danean, luña kenduta, supiña dirudi azaltzen dan altzairuzko mokor aundiak: mokor au, kate bidez eta indartsu jaso ta burnizko tantai gañetan etzanda jartzen dute: gero ta bi aldetatik, bi ziri zoñotz eta lodi, supin zuloaren neurikoak, eta ertzetan *hort* deritzan afikatz gogoña dutenak eta supin erdian alkar topatzeko eran jaria, ginbeletak bezela indartsu jiraka erabiliaz, piskana mokoña zulatzen dute.

—Bai, lan gogoña dala!

—Bai, alajaña! ta supin eta ziriak gelegi berotu ta lertu ez ditezen, maiz gaimelez buzti bear izaten dituzte: ta bi edo iru egun baru, supiñak, altzairuzko txirbilak darizkiela, zulatzen dira: oso ta sendoak, pitzatu gabe, gelditu ezkeroz, luzaro irauteko eran daude. Bañan Ordizia'n gera noski. ¡Aupa mutilak! Beasain bertan degu ta.

Guztiak zutik jari ziran: esker-eskubi aldera Bul-tziola'ko etxeak ain aundi ta ugariak zirala afiturik ikusi zituzten eta garaiz sugurditik jetxi ziran.



OLKINTZA - BEASAIN'DIK BILBO'RA

BERE mutilakin batean eta geltokitik Bultzi-olara, juan zan irakaslea: atarian lenbizi, gela batean gero asko itxoin bear izan zun bere asmoak adirazi ta ola ikusteko baimena artu arte; noizbaitean baimena ta laguntzale kopetilun bat eman zioten eta, au buru zutela, irakasle ta mutilak ola ikusten asi ziran.

Berogei lantegi edo etxe izango ditu ola afeak, ta laguntzaleak batera eramaten zitun eta atetik, auferatu gabe, ikerleai esaten zien: «emen, au ta ura egiten da, begira» ta laburtxo itzegin da gero, ordukiñari begiratu ta «guazen» ziola, beste aldera juaten zan.

Bost edo sei aldiz ori bera egin zunean irakasleak esan zion:

—Aizu, adizkidea: guztia ezin ondo ikusi ezkeror, bear bearena erakutsi dezaiguzu ta kito.

«Ondo dago» (erantzun zion laguntzaleak); bañan, setatsua zan nunbait eta ¡bai zera! etzan ez zuzendu.

Ezin ikusi izan zuten ola, nai bezela: eskerak, mutilak azkarak izan da, Patxiren erakuspen bidez ernaituak, guztia, begiz jo ala, ulertzen zutela: bestela, etzuten asko ikusiko.

Azken aldean, eskupeko on batez laguntzalea bigundu zan; bañan berandu: etzun nunbait irakasleak,

«Txakuren poza izatzean,
Ogia jan dutenean.»

dion esaera zara gogoan izan. ¡Gauzak garaiz egin bear! Makur samar Bultzi-olatik atera bear izan zuten gure irakasle ta mutilak: ostatu batera juan, eta bazkalondoan Zumařaga'rako sugurdia artu zuten.

Zumařaga'n, beta gutxi zutela ta Beasainen bezela gertatu litzaiekelakoan bildurez, etzuten aurean zeukaten karka ta aldameneko jauregitxo politak besterik ezer ikusi izan nai eta Bilbo'rako bidea artu zuten.

Lan izugaria eman zun Zumařaga'tik Maltzaga'raño iriki zan burni bideak! «Chef d'œuvre» «lanik ederena» prantzitar batzuek ziotenez: ta legez ta bidez.

Alako toki estu ta aldapatsuan bidea irikitzeke, lenbizi ereka bateko urak bota zituztela dirudi ta uren atzetik gizonak bidea aztarnatzen ibili izan zirala: bide ori, emen geiegi biurtzen zala ta mendiak zulatu bear; au, azkaregi jesten zala ta bidea okertu ta birlildu ala luzatu bear: onela arduraz neuriz eta egoki egiña bide ařigari ori azaldu zan.

Su-gurdia zaintzen dutenak, bide ori, galpenik gabe iragateko beti zintzo ibili bear izaten dira.

Bide ortako baztar politak ikusi ta su-gurdia, suge luze bat bezela biurtzen zala oartuaz, asi ziran mutilak bein alde batetik, urena bestetik su-gurdi berari begiratzten eta «ara, erege txakur galanta, garamazkin sugurdia» batek esan ala, «¡bai dirudila!» beste mutil guztiak erantzun zuten!

Egiaz, ikustekoa zan erege txakur aundi ura, orain eskubi aldera ta gero eskeřera biurtuaz, burua izatz alderuntz eraman da eraztundu naiean... eta beti be-

runtz jetxiaz, batzuetan mendi zuloetara sarturik, bes-tetan basoetara aldenduaz eta beti, nunbait izatza za-paldu nai zion etzai baten igesi.

Antzuola'ko amiltegia, bildurgafia zirudien mutilai!

Bergara gañean ikusi ziranean eriko etxe-zapaie-tara eroriko ote ziran bildur zeuden mutilak eta bertan geldituko zirala uste zuten; bañan sugurdia mendi-runtz aldentzen zala ikusirik afitu ziran; bañan baso tartean luzaro ibili ondoren, beriz Bergara ikusi zuten eta zeukaten lafitasuna aldendu zitzaien.

Mutil geienak pozik ibili aŕen, baziran batzuek txorabiatuta zeudenak, eta oiegatik gizagasoai lagun-du naiean eta aŕatzaldea ilun samar zetorkielako bultzi baŕenen bildu ziran eta irakaslea kopetiŕun zegola igafirik, beren tartean itzegiten asi ziran, isilka mi-silka lenbizi, marmarka gero ta azkenerako ojuka ta algaraz.

Antzertegi batean bezela asi zan mutil bat, Bea-sain'go laguntzaŕearen izakera ta esanak gogoratzen eta besteak paŕez zeudela, irakasleak ere kopeiŕun egon aŕen, nai ta nai ez, paŕ piskabat egin beaŕ izan zun: ala ere, gogortxo «naikoa da, maiteak; iñor ise-keŕtan artu gabe, jostatzea, obe dirudit» esan zien...

Onela, beriz isil samar, egun aietako gertaerak gogoratuaz batzuek eta erdi lotan besteak Bilbo'ko urira eldu, ernai jaŕi, lendik zekiten ostatura juan, ondo apaldu ta oieratu ziran guztiak.

SAL-EROSKETAK - BILBO'N

IGANDEA zala ta goizean goiz jeikita aldameneko Eliz aundi batean Mesa edo Jaupa entzun, nai izan zutenak Jaun maitagarria xamurki artu ta otoitz beroak egin da gero, ostatura gosaltzeko asmoan eldu ziran.

Gosari bitartean, aufferko egunean bezela Irakaslea kopetilun zegola igari zuten eta bera urduri ikusteak samintzen zitulako, isil-isilik eta alkar begira egon ziran: batzuek Patxi'ri aldizka begiratuaz, irakasleari zerbait esan zezaiola burua igiturik adirazten zioten: Patxi'k asmoak igari zizkien eta zufitu ala maitetsu esan zun:

—Irakasle Jauna!

—¿Zer nai dezu, Patxi? (burua jasoaz erantzun zion).

—Zu, atzo ezkeroztik samindua zabiltz: artarako biderik eman ba'dizugu, azketsi ta esan.

—Ez, ez, ene kufunak; enago zuen eruz naigabeta: atzo Beasain'en gertatu zitzaigunez baizik: eskatzen ditudanak ukatzen oitua egon ez arien, enaiz aritzen eta ola bat geiago edo gutxiago ikusteak eniñun saminduko, naiko olak lenagotik ikusi izan bai-dituz; bañan, zuei, nere mutil maite ta zerbait ikusteagatik, ainbeste diru zabaltzen ari zeratenai, ikasteko

errestasuna kentzeak... ¡bai, naigabe aundia eman zidala! ta okefena izango dana, beste ainbeste gertatuko ote zaigun bilduréz nago.

Ez orégatik minberatu, Jauna: Tolosa'n eta... naikoa ikasi degu: pozik gabiltza ta zu ere alaitsu zaudela ikustea nai genduke.

—Eskeřik asko ene maiteak: zuen maitetasunak geiago pozlutzen nau: ala ere, alegin guztiak biar ola batzuek ikusteko añakoak jariko ditut, bear ala Nagusi Jaunai urutizkiñez etxez etxe baimena eskatuaz.

Bitartean, eta uri aundi ontan nola ta ze arauz ibili giñezken jakin arte, or aldamenean dagon zeieko es-talpetan ibiliko zerate, alik eta deitzen dizuedan arte.

Mutilak zeira jetxi ondoren, irakaslea ara ta onera urutizkiñez deitzen asi zan, nun bere mutilakin batean zer edo zer ikusi lezaken galdezka: bañan ¡bai tamala! zortzi edo amar aldetara deitu, ta bere ta bere mutilen asmo sarigariak adirazi ala, aitzeki uts besterik etzun entzun...

«Oraĩndik, oporketak amaitu ařen, etzitzaieztela langile guztiak etofi, ta zeudenak etzirala beařak egiteko naikoak.»

«Astelena, langileak ernai eta zintzo ibiltzeko egun txafa izaten zala ta...»

«Lan geiegi atzeratua zeukatela ta egiñalak aunditzeko beařean zeudela...» ta abar.

¡Amaika aitzeki entzun zifun! Etzitzaion, ez iñor ukatu, bañan baletz-ik ere etzion iñork eman!

Guztiz minberatua noski arkitu zan irakasle-gizagaisoa; bañan, berengan zionez, kapetilun azalduta, atzo bezela mutilak naigabetuko zaizkit eta ori samia da.

«¡Barura miñak!, ta alaitasuna arpegi-tik zerikiola, mutilengana jexi zan; argi ta garbi gertatzen zitzaiena adirazi zien, ta olkintza utzirik eta urengo egunetik sal-erosketak adirazten asiko esanez, eria ikus-tera eraman zitun.

Bi ordu baru, oñez eta tximist-gurdiaz ibili ta, Bilbo beriko kafika zabal, zumardi ta lilitegi polit, Jauregi eder eta etxe galantak ikusi zituzten: eta alako efi zafi aundi'batean Josu-Lagundi-ko Eliz edera bakarik bidez arkitu ta ikusi zutela'koan aritu ziran mutiak; bañan irakasleak esan zien bezela, lekaide Jaun eta lekaime Andreai eskerak, txadontxo batzuek, naikoak ez aŕen, ba-ziran efi zafi artan.

Gañerakoan bai, Bilbo beria eder edera agertzen da, diruduna, galanta... bañan donostiar batentzat ez bear añako txukuna.

Amabi-k inguruan, ostatura eldu ziran irakasle ta mutiak, eta patxaran bazkaltzeko asmoan... bañan... iso! jgero arte!



SAL-EROSKETAK - BILBO'KO ONDOREAK

ATSEGIN aundia izan zuten gure irakasle ta mutilak bazkaltzera igo ziraneant!

—¿Nundik nora datorkigu (zioten batak eta besteak) gure ontzi nagusi maitea? ¿Zu emen? eta ¿nola?

—Ara: gutxi gora-bera, egun oiatarako emen izango zīñatela ba-nekin eta galdezka-galdezka bart, aratzean zuen beñiak izan nitun eta orain natorkizue: ¿ondo al gabiltz? ¿eta bazkaltzera al-zatozte?

—Eder ta ederki gabiltz eta bazkaltzeko asmoan etorri gera; gurekin batean bazkaldu nai ba'zendu...

—Bai ta pozik, ere...

—Orduan, ez dago emengo etxekoandreari esan besterik.

—Gaizki adirazi naiz nunbait: zuek nerekin bazkaltzea nai nuke: ¿ondo al dirudizue? ta mutil oien buru izango naiz gaurko aratzalde guztian.

—Mutilak nai ba'luteke... (Oiek ifipartsu ta isilik ziraute).

—Ona nola poztu zaizkigun mutilak; gaur nereak dira kutun oiek: zintzo zainduko ditut. ¡Aurera mutilak!

Ta esan ala jesten asi zan itxas gizona: mutilak ere, klñuz baletz irakasleak ziela, aŕen atzetik jetxi

ziran eta irakaslea, etxekoandrearekin itzezin da gero, besteekin alkatu zan.

Guztiak, zubi zabaletik zetoñen tximist-gurdian sartuta, Algorta'runtz juan ziran esker aldeko ontzi ugari ta eskubi aldeko jauregi ta etxe politak ikusiaz.

Bide artako etxe edefak ikusi ta gero, Deusto'ko Josu-Lagunen Ikastetxe-nagusi aundia, lenbizi, ibai aruntz dagon Labe-gori deritzan eta gabez zu-leizeko antza dun ola izugaria gero afiturik ikusi zituzten; Ondartzako lilitegi txukunak ere bai: ondoren, Neguri'tik kai beñiaren aunditasuna, Algorta'ko jauregi beñi galantak ta abar... ¡Bai edefa dala itxas-ertz ura!

Algorta'n jetxi ziran eta antxe patxara edefean eta lagun ezagunen artean bezela atsegin gosoan bazkaldu zuten, bitartean eta txandaka mutil beñitsu eta maite aiek beren jun-etoñien beñiak itxasgizonari ematen zizkiotela.

Bazkalondoan, Ondartza'ra jetxi, txintxilikatuta dagon, eta dabilen gurdian Ibaizabal iragan, Portugaleteko eñi ta nasak ikusi ta kai bañendik itxasoz ontzitzo batean Santurtze'ra eldu ziran.

Eñi txit aunditu beñi artako, Txadon, ikastetxe ta jauregi polit asko ikusi ondoren, bertako tximist-gurdia artu zuten eta Bilbo'runtz beñiz aldatu ziran, bidez eta gurditik jetxi gabe Portugalete, Sestao, Desierto, Barakaldo ta Basurto'ko gaisotegia ikusiaz.

Bilbo'ra iristekoan, Begoña'ko Txadon ospetsua ikusi bear zutela irakusleari bururatu zitzaion: itxasgizonak ere ala egin bear zala ta zion: «¿Nor, ain bertan arkifu ezkeroz euskaldunen Ama maite ta Etxekoandre laguntzalea ikerlu gabé aldendu liteke?»





BEGOÑA

Andre Miren Deunaren Txadona

Ta lasterka mendi gora igoaz, guztiak beren asmoak bete zituzten: Andre Miren Deunari biotzeko agur-laztan bat egin zioten eta Txadon edera zerbait, berandu samar zalako, ikusita, andik irten ziranean, Bilbo'ko efi geiena beren oinpean zekusten afiturik... ¡Ura zan ango edertasun eta aberaztasuna!

Etziran, ez; Begoña'ra igotzeaz damutu. Eta pozez beteak eta arin, atsegintsu efira jetxi ondoren, ostatura eldu ziran guztiak.

Orduan eskertsu ta gogoz itxasgizonari mutilen izenean berakin apaltzeko gelditu zedila eskatu zion irakasleak. Etzun onek ori besterik nai eta bereala «baietz» esan zun.

Apari ura, etzan bazkaria añakoa izan: obe, osasuna ondo zaintzeko; bañan ¡bai bazkaria bezin alai ta beriketatsua! Bilbo, Denostia baño aundigoa dala, ez dula Donostiko txukuntasunik: Basurto'ko gaisotegia baño izugarigoa dala Iruñakoa, Pasai'ko kai zakona bezelakorik ez dagola Euskal-eriko itxasaldean eta abar.

Apaldu ta gero, itxasgizona, ufengo goizean Kadiz aldera zijoala ta aurretik egin-bear batzuek zitulako, maitetsu «beste bat arte» esanaz ta guztiak agurtuaz aldendu zan.

Irakasle ta mutilak, nekatu samar zeudela ta laster oieratu ziran. ¡Agur!



SAL-EROSKETAK - BILBO'N

ASTELEN goizean, jeiki ta gosaldu ala, ostatu bertako gela zabal eta eder batean irakasle ta mutilak alkartu ziran.

Ikastolan bezela, irakaslea, mutilen aurrean eserita, itzegiten asi zan, Patxiri galdera bat egiñez:

—¿Noiz, uste dezu, Patxi, sal-erosketak asi zirala?

—Ez da ori eñes jakitekoa, Jauna: bañan gizadi asieratik sal-erosketak bearko ziran noski.

—Egia diozu: ez dira gizonak bakartasunean bizitzeko egiñak, alkartu ta bizitzeko baizik: ortarako dute Jaungoikoak emandako izkera; ta onen eta beste doai batzuen bidez, gizonak beren tartean alkar ulertu, maitatu ta antolatzen dira.

Bakariik bizitzekotan, gizona, beretzat bear duna ezin eskuraturik arkituko litzake; lenbizi, berez txikitandik ezin ezer egin dulako, abereak baño aulagoa jaiotzen baida; ta gero alde guztietarako zaletasuna bearko luke ta ez dago ludi ontan ainbeste zaletasun dunik, ez ta ere bi gizon zaletasun berdiñak dituztenak arkitzerik.

—Azketsidazu, Jauna; bañan gixonak lenbizikotik abereak bezela bakarka eta pilaka baso ta leizetan bizi zirala entzun izan det.

—Etzazu, Patxi, etzazula beñere olakorik sinistu: alako txorakeri, ta, garbiago esateko, ainbesterañoko astakeriak, buru gutxi ta biotzik gabeko totxolo batzuek (beren ustez jakintsuak deitu aŕen), itxuski esan dituzte. Aizazu, Patxi. aitaren bildurik noizbait izan al dezu?

—Bai, Jauna; gaiztakerien bat egin izan dedanean.

—Ori bera gertatzen zaie gizon oiei: beren Aita (berak nai ez aŕen) Jaungoikoa da, ta gaizki dabiltzanean Jaunari bildur diote... ¡gizon zitalak! ta uste, berak Jaungoikoa ukatu ala, astindu bear ditun Erabakileak ilko zaiela! ¡bai tuntun petralak dirala!

Txinguri batek, bildur dizula ta, etziñala bizi bear adiraziko ba'lizu... ¿zer? ofegatik bakaŕik ilko al ziñake?

—Ez uste. Txinguri batek ¿zer nere kaltean egin lezake?

—Gizon oiek Jaunaren kalte egin lezateken baño gelago.

Txinguriak gaitzen bat egin lezaizuke; bañan ¿Jaunari gizonak? Ezin ezer.

Bein batean, Persi'ko Sa edo bakaldun batek, aur-tzarotik artutako gizon batek, berez zer jakin lezaken ikusi nai izan zun: ortarako, iñude bati mingaña moztu aur bat zaintzeko agindu zitzaion eta onek ala egin zun. Iñudeak, berez aŕra ezin azi zunean, aunts baten bidez alikatzen zun; eta gero, umea, berez jaten eta jazten (makilez jo ta zematuz) oitu zutenean, bakaŕik eta gela aundi batean antxume batekin utzi zuten.

Gizon batek, eguneroko janaria eta noizean bein alkandora lasai ta txukun bat ekaŕi ta gelako garbiketak isil-isilik egiten zizkion.

Zaspi urte izango zitun mutiltxoak, Bakaldunak ikusi nai izan zunean.

Azaldu zan Bakalduna, oial polit, urezko apaingai eta izkilo dizdiratsuak zerabilzkila: Sa-ren lagunak ere, bera bezin egoki jantziak ziruditen.

Alako Jaunak gelako atean agertu ziranean, ordu-rako sartuta zegoen antxumearen aldamenean itxuski etzanda zegoen mutila: etzan zutitu; ¡bai zera! lañi zirudin, geldi geldi, bañan alako gizon taldea tinka begiz joaz. Bakaldunak, maitetsu galdera batzuek egin eta goso minkitsuak mutilari eskeñi zizkion... ¡bai alpefik! etzun mutilak ezer igartzen, ez ta erantzun ere... aberetxo bat zirudin.

Ontan, Sa-ren laguntzale bat auferatu zan; makil bat jasoaz zematu zun eta orduan, mutila ta auntza makur-makur baztar batera aldendu ziran; auntzak bildurez dar-darka «¡beee...! oi bezela oju egin zun: eta ¿mutilak?» ¡beee...! auntzak bezelaxe!

—¡Mutil gisaxoa! (zion Patxik): ¡bai erukigari zegola bera!

—Benetan eta geroztik ere, lengo eunkidean bertan, basoetan galduta topatu izan diran iru edo lau gizonak, guztiz aberetuak zeuden.

Bi ikaspen atera bear dituzute orain esan dizuedan kondairatik: lenbizikoa, ez dala gizona bakarrik bizitzeko egina: bigarena, zuen gurasoengan eskertsu bizi bear dezutela: berak, Jaunak agindu bezela, maitetsu zainduaz ta piskabana itzegin eta gauzak erakutsiaz, onbide asko ta doai aundiak eman dizkizue ta.

¡Jaunaren egintzak ukatu ta zuzentzerik ez dago, orain otordu arte, orko zei-estalpetan jostatu zaitezte! ¡Gero arte!

SAL-EROSKETAK - BILBO'N

A MABIETAN bazkaltzera igo ta beriz irurak arte, aldameneko zei-estalpetan gora ta bera ibili ziran gure mutilak. Irurak jo ala ta irakasleak agindu bezela, ostatura igo ta goizeko ikaspenean jardun zuten.

«Mois igarleak dion eta dagokigun lez, Jaungoiko berak lenbiziko gizon eta emakumea egin zitun: gizon eta emakume oien bidez jaio ta azi izan dira ondorengoak eta oraindik, gure atzetik datozenak ere biziko dira noski gure Jaun Egileak nai arte.

Lenbizirik Adan eta Eba adimen ta biotz garbikoak ziran; geroztik okertu ziran eta beren doaiak zerbait galdu aren, berengan oartzen zituzten egin bearak betetzeko eran gelditu ziran; baita beren ondorengoak ere, Noe ta bere semeak arte.

Oien ondorengoak ere, izugarizko jakintasuna ta lanerako kemen altsuak zituztela, Babel'eko etxe goiti, Ejipto'ko obitegi galantak, Menfis'eko jauregi ari-gariak, baita ere Ortziko izafen eta ludiko gora-beren zituzten beriak, ez al zuten garbi ta bear aña adirazi?

Ez da afitzekoa, antziñetako gizonak ainbeste jakitea, Luzaroan (batzuek zortzireun, bederatzireun urte ta geiago) bizi izan ziran; eta aitonak zekina

aitari erakutsi, aitzak berez ikasi ta gurasoai entzuna semeari adirazi ta abar... ¿zenbat jakin zezaken ilobak?

Geroztik, efi batzuek (ez guztiak) atzeratuak ba' dirudite, Jaungoikotzaz azlu ta gelegi banakatu diralako izan da.

Orain bizi geranoi, bizia laburtu zaigu ta gañera urduri, azkaragi bizi gera; ta jakiña, gari landarea azkar azi ta legortzen da; aritz sendo ta iraunkoia beriz, piskana ta geldiro azten bai-da ta luzaroan bizi, orekatik, antziñakoak geldi ta lasai, guk alegiñetan ikasten deguna ta geiago jakin zezateken.

Au ala dala, lenbiziko gizonen tartean, bakoitzak bere zaletasuna zula ta, bat nekazari, bestea arantzale, au eiztari ta ura artzai egin ziran: eta onek, burnia meatzetik atera ta eratuaz, arek zuaitzak ebaki ta antolatuz eta abar, guztien artean, gauzak bear ala eskuratzen zituzten eta senideen tartean bezela banakatu ere bai.

Geroztik, gizonak ugaritu ziranean, aukeran zeuden mendi, zelai ta ibarñetan zabaldu bear izan zuten eta orduandik, senide ezagun tarteko maitetasuna galdurik, etzion bata besteari beregan zeukana ematen, beste gauzen bat ordanbez eskatu gabe: orela, garia zunak, ardiak edo eskatzen zitun eta berea eman eta bestearena artuaz, bata ta bestea ordaintzeu ziran. Ortik sortu ziran *Artu-emanak* edo *Ordaintetak*.

Bañan, ugari ta eres eskuratzen diran gauzak, ez dira sail samar eta lan asko bidez lortzen diranen ainhbestean artzen; ta orekatik eta berdintsu ordaintetak egin bearean, neurriak asmatu zituzten: onela, gari pila baten ordeaz efalde bat aragi eman (*Neur-*

ketak); edo bost ardien ordañez, asko bat artu (*Zenbaketak*).

Bañan, jarai maiz gertatu oi zana.

Nagusi bat, bere ogei mofoi eta oiek zaindu bear zituzten ogei mando, burni eta altzairuz zamatuakin batean ateratzen zan; lenbizi, bertan zegon eri batera; gero, bestera ta uřengoan urutirago zeukan efira: emen zama bat eman eta an beste bi utzi bear ba'zintun eta gañerakoak beste auzo ta efietan... ¿nola antolatu?

Altzairuaren ordaña, garizkoa ba'zan, mando batek eraman al lezaken? Edo lanik gabe gelditzen zitzaion mofoia auzoan alperik utzi bear ote zun? Zama erdia zeraman mando akin batean mofoia etxe aldera bialduko zun?

¿Eta lapurak erailtzen ba'zuten, edo oien aitzekiz mofoiak iges egiten ba'zlon?

Onelako naigabeak kendu, ta utsunak betetzeko *dirua* asmatu zuten.

Lendik orain arte, burni-gori, zilar eta uřezko zatitxoak asaba zafena dan edo burutzat dagonaren antza daramatenak: diru oiek, gauzen ordeztartzen dira, gauzak damazkina, saltzale dala ta dirua ordainez ematen duna, erosle.

Ora, nola sortu ziran *Sal-erosketak*.

Dirua, berez zamatia da; ta alde batetik bestera eramateko, lan asko dama: eta gañera, diru asko daramaten gizonak, eřnal ta ondo lagunduak ez ba'dabiltz, lapur eta mandazaien eskuetan arkitu litezke: ořegatik, Judutarak, beren aberia galdu ondoren, ludi geienezan zabaldu bear izan ziranean, diruzale ta zikoi-tzak diralako, eta gutxi jan eta gaizki jantziar irabazi

dutena ez galtzeagatik, diru gutxirekin efi batetik bestera juan da, gauzak erosteko era egoki bat asmatu zuten.

Ikusgaia: Kairo'tik Marsela'ra zijuan judutar bat: bi uri oietan erikideak zitula ba-zekin: ta biderako bear zun dirua bakañik zakelean sartu, ta gañerakoa, Kairo'ko lagun bati uzten zion: lagunak txartel edo agiri bat ematen zion berari ta onek, txartel oien bidez, Marsela'ra iristean, bertako lagun batek Kairo'n utzitako dirua ematen zion.

Marsela'ko laguna, Kairo'ra zijuan beste baten diruz edo... ordaintzen zan. Beren tartean, izkeraz eta beste agergaiaz, judutarak alkar ondo ezagutu eta beti laguntzen dira.

Ortarako, Kairo'ko txartel emaleak, eundik bat (1 %) eskatzen du. Onela Marselara dijuanak, an; ogei anei ogerleko (20.000 \$) nai ba'ditu, beste befeun geiago (200) Kairo'n utzi bear ditu. Befeun ogerleko oiek txartel-emalearentzat dira; Txartela daramanak beriz, befeun oien orde, Marselara iristekoan, ogei aneak eskuratzeko eñestasuna izaten du ta ori galpen eta lapuñen bilduñik gabe.

Judutaren gandik, beste erietakoak ere, nola dirua irabazi lezateken igari ta ikasi zuten eta *Diru-etxeak* iriki ta Judutaren eran berak ere, nai aña ta geiago irabasten asi ziran.

Egia, ez dutela Diru-etxe guztiak amai ona izaten: geiegi irabazi nai ta naspil geiegietan sartzen dira ta batzuek, kalte izugariak dagizkitela, puñut egin eta ondatu dira.

Bañan geienetan, irabaziaz dabiltz. «Diruak diruari deitzen diola dirudi».

Ontatik datoz, diru-txartel, *txeke*, *warants* eta abar, sal-erosketak ainbeste efesten dituzten paperak eta paperezko diruak berak.

Bañan, uste gabe, geiegi luzatu naiz. Biar jarai-tuko degu. Au esan ala, irakasle ta mutilak, Bilbo zara, Atxuri'tik Deustoraño ikustera irten ziran eta ilunabarean etxeratu ere bai, uréngo egunean geiago ikasteko asmoan.



SAL-EROSKETAK - ZINTZOTASUNA

URENGO goizean, gosaldu ala, zerbait jostatzen ibili ziran mutilak, bildu zitun irakasleak, eta aurreko egunean utzi zun itzaldia, onela jardunez asi zun.

Ola edo saltegi bat jafi nai dun gizonak, artarako zaletasuna bear du; bestela, ola edo saltegia irikitzeko aufferatu ditun diruak alperfik galduko ditu. ¿Nola saltegian sartuta geldi egon liteke, bere zaletasunez eiztaria izanda beti mendiruntz juateko gogoak daukana? Ta zaldi bat, esan oi danez, jabearen mendean azi, gizendu eta sendotzen da. Gurasoen aginduz sal-erosle egin danak, aien mendean bizi dan bitartean lanari ekingo dio, bai: bañan ez iñoiz, bear bezela; goiz edo berandu lanean motelduko da ta azkenean, moñoen eskuetan artu-emanak utzita, purut egin bearko du.

Bigarren: 2.º—Sal-erosleak, biotz ona bear du.

Auzoko batek saltegi bat dula ta, apaña bezela igoaz, aberazten ari dalako, ba-dira bekaikeriz edo ain eres aberaztu naiean, beste saltegi bat auzokoaren aufe aurrean jartzen dutenak: ¿zer gertatzen da?

Efi bakoitzean, gutxi gora bera ta igaz aña aurtien ere bear izango da; ta auzokoak, erosle guztiak arien-

gana zijuaztela naikoa irabazten ba'zun, orain ezin eta samin gelditzen da; sal-erosle beria beriz, uste zun aña ez dula irabazten eta zaputs. Biak, alkar etzaitzat artu ala, asten dira; bat, sal-gaiak zer bait merkatzen; bestea, merkeseago saltzen; eta onela, alkari gaitz egiñez, biak ondatzen dira. Saltegi beri bat jafi nai dunak, lenbizi, eri artan saltzen ez diran gaiak bear ditu: onela, urutiko auzora edo beste eri batera gai oien bila juan bear duenak, erestasun ofen bidez, erian bertan erosiko dituzte ta saltzale beriak nundik irabazi izango du.

Irugarfen: 3.º—Sal-eroslea azkara izan bedi. Lenbizi, berak ezkatzen ditun eta bialtzen zaizkion gaiak, on edo txarak diran ezagutzeko eran arkitu bear du.

Gero, gaiak eskatu ta saltzeko garaia noiz dan jakin: onela udaberako oial me ta ariñak, neguan eskuratuko ditu, negurako oial lodiak beriz udazkenean eta abar bakoitza bere garaian.

Saltegia jartzen dan tokiak ere, zintzo aukeratzeak, asko laguntzen du; ¿zein juango da gauzak erostera, ilunpean eta karika estuetan dauden saltegietara? Iñor ez. Karika zabal eta etxe argi ta alaitsuetan dauden saltegietara beriz asko.

Orez gañera, gertaera izugarri bat datorrela: ikusgaiaz: eri batean, Euskeraren alde lan egiteko asmoan, gizon asko alkartu bear dirala; ¿elitzake batzar ofen egun aurretarako, bileraren oroimengarizat izan litezken jostalu polit, zilarrezko domin txiki eta antzezki eder batzuek asmatzea, ondo etoriko?

Lanerako tresnak saldu bear eta, tresna bat, beste era batean eginda, egoki ta obegoa izan litekela ta

¿zergatik ez, ori ikusteko alegindu? eta uste bezela sortu ezkerro ¿zer dala ta geiago ez egin erazi?

Onelako asmaketa bat izaten da geienetan aberaztasunaren asiera.

Laugarren: 4.^{en} — Saltzaleak, ez du diru-zalegia izan bear.

Bat batean aberaztu nai luken gizona, ez dabil zintzo ta garbi. Ibai batek izugarizko urak bat batean biltzen ba'ditu, ur olek zikin-zikin daramazki.

Gertatu liteke (ikus-bidez), janari ta edari saltzale batek, beren mendean langile edo gudari asko dituzten lagun altsuak izatea ta lagun aien aginduaz, langile edo gudari oiek saltzale orengana jan-edari bila jua bear izatea. Saltzale oiek asko irabazi lezakela uste dezute? ¡Bai zera! Itxurez, bai; bañan, lagunai eskupeko onak ordaindu bearean edo... bear baño gai txaragoak eman bear eta...

Onela ta itxuski dabilen saltzaleak, lenbizi izena galdu ta gero, gaizki gelditzen da geienetan. Laguna-kin, zikorkeriz edo uskeri baten bidez azaretzen dala ta, aiek beren mendeko erosleak saltzaleari aldentzen dizkiote... ta ¿zer? ¡Utsa! Saltzalea izen on da dirurik gabe gelditzen dala!

Asko ta merke saltzeak, sal-erosleari laguntzen dio.

A ta B, saltzaleak eun aneina ogerleko (100.000 \$) beren saltegietan jari dituzte: A'k, sendi, etxe ta moñoi-entzat beardiranak ordaindu ta gañera, eundik bat bakara (1 %) irabazi nai ta, gaiak merke saltzen ditu. B'k beriz, gai berak saldu ta era berean, eundik amabost (15 %) atera nai lituke. ¿Zeñek geiago salduko du? A'k noski ta amabost aldiz geiago.

A'k, egunero iru anei ogerleko (3.000 \$) gaiak saldu ezkeru, urte bat beru, eun anei ogerlekoak beregandu ditu ta gutxi gora bera iru anei irabazi ere bai.

B'k beñiz, amabost aldiz gutxiago, befeun ogerleko (200 \$) bakarik! Ta gañera, lan gutxi dagola ta, saltegia utzi, lagun tartera jua, apari ta jokuan diruak sakabanatu... ta gero? Oialak, zitzez bete ta alperik galdu dirala ta abar.

A'k beñiz, etxean lan asko zeukala ta saltegia zaintzen ari zan bitartean ez du lagunentz tarfean ezer ondatu, ta

«banaka banaka
jari du pilaka»

lanean irabazi dun dirua.

Bañan gaur ere, geiegi luzatuko nitzake, ta aiatzalderako utzi bearko det esan nai nizuekena. ¡Zuazte orain zeiko estalpetan jositazera! ¡Gero arte!



SAL-EROSKETAK - ZINTZOTASUNA

(Jañaketa)

TA? Oraindik zerbait ikasteko gai al zerate edo nekatuak nunbait? (baskalondoan mutilai zien irakasleak).

—«Ez, Jauna, ez»: guztiak batean erantzun da, berez Patxi kutunak esan zion:

—Gu baño geiago nekatu ziñezken noski, ta zuk lan egin nai ezkeru, ez guregatik utzi.

—Orduan zerbait egin dezagun: eseri ta entzun. Bañan gaur, beñi atsegin bat eman nai dizuet. Gudontzi bat kaiean azaldu dala ta bera ikusi genezaken galdetu diot emen izan dan agintari bati ta seiretako itxoingo digula esan dit. Juan nai al dezute gudontzi ori ikustera?

—Bai, Jauna, bai ta poziki!

—Ori gerozeago ikusiko degu: orain guazen arira. «Sal-erosleak bear ditun eta adirazi dizkizuedan doai-ez gañera, beste asko bear lituke, bañan batzuek bakarik eta laburtxo esango dizkizuet.

Sal-erosle batek, garaiz eta ordu jakinean saltegia iriki bear du: gosaltzeko janari bila dabilenak, amarak arte itxoin bear ba'lu, ¿zer? beste saltegi iriki batera juango dala; baita ere, lanerako bear ditun josta'atzak

nai ta saltegia, jabea eguzkia artzera juan dalako, itxita arkitzen dun jostuna.

Alde guztietan, saltegieta, erosteko aitzekiz lan ematera, egunero dijuazten etxeakoandreak ba-dira: oiek, «alako oialik ba'aldezute?» ta «onelakoa? Jan edo emen egindako eun ariñak ere bai?» eta onela galde-tuaz, apalak ustu ta maiak bete arte, oial bilgotxoak jetxiazten dituzte, ta ikusi ikutu ta gero «gareztigiak edo berak nai añaakoak ez dirala» ta zabal-zabalik, bildu gabe utziaz juaten dira...

Ez dedila saltzalea onelako etxeakoandreakin azaretu!

Zitalki agurtutako etxeakoandreak, nunai marmar-ka, saltzalearen kaltean itzegiñez dabiltz: eta auzoko beriketa kezkatuak beti gaitzen bat dakarte: atsegin artu izandakoak beriz, ondo itzegiñez lagundu le-zateke.

Gañera, etxeakoandre ospetsuak alkartzen diran saltegieta, beste asko, aundinaikeriz geienak, biltzen dira: aiek aña dirala ta aiek aña oial edera erosi lezatezkenetakoak dirala adiraziaz.

Sal-erosle gezurri bat, ezin leike luzaroan ondo ibili: bi edo iru aldiz erosleak atzipetu lezazke... bañan ¿geiago? ez uste.

Gai bat ez izan arien, ba-dula dion eta bařendik al dan lenena ekañ ta erakutsiko dula gaur eta biar dion saltzaleak, laster erosleak azpertz ta usatzen ditu: baita ere, gai batez lenbizi asko eskatu ta gero piska-bana jetxiaz, eskatutako ordain erdian gauza utzi bear izaten dunak. Eta salgai batez, gaur lau, biar bost eta ufengoan sei eskatzen ditunak? Onelako saltzalea, laster eroslerik gabe gelditzen da.

Diruak zaletasun aundia dama ta sal-eroslariak okerkeri bat egiteko bide eřesa dauka. ¿Zein, gaimela saltzen dabilena, koipez kutsutua ikusirik ařitzen da?

Ala ere, sal-eroslariak, guztiok bezela donokirako jaioak diranez, beti zintzo, Jaunaren aginduak egiñez, ibili bear dute.

Guztiok, gure gurasoen bidez Jaunarengandik gatz eta Beraren semeak izan eta senideak bezela maite bear gera gizonak.

Batek besteai lagundu bear diogu: Jaungoikoak agindu, ta biotzak eskatzen digutenez, artaratuak gaude.

Guretzat nai ez gendukena, ez degu besteentzat ere nai bear; ořegatik ez dezaiogun iřori kalterik egin, ortarako biderik ez degu ta.

Agirian ala eskutuan onak izan gaitezen eta Jaungoikoak eta ludiko agintariak maiteko gaituzte: bařan, agirian zintzo ta eskutuan gaizki ba'gabiltz, eta ludiko agintariak saritzen ba'gaituzte ere, ez ala, guri begira beti ernai dagon eta gure agintzak ondo dakizkin Jaungoikoak. Onak, laster edo berandu ta bear eta oi dun bezela gure gaiztakeria zigortuko du.

Jaunarenganako bildurá, gure jakintasun edo zintzotasunaren asiera izan bedi!

Bařan obe degu Jaunaren maitetasunean bizi. Jaunari biotzez «Aita maitea» deitzen dionak, bere biotza, eguzkipean dagon burnia bezela, bero bero maitetasunez betea ta zabaldu naiean igartzen du: maitetasunak, zabalkoi eta ona denez, ez du gaitzik egiten; laguntz onak baizik; gizonak, senidetzat artzen ditu; beartsuai diru edo janaria damakie; aulai laguntza emateko gerturik dago: ez dakinari erakusten dio...

Onela dabilizan gizonak, ludian gentzatsu ta donokian doajitsu biziko dira.

!Era ontakoak egin gaitzala Jaunak!

Au esan ala, len esan bezela, Irakaslea ta mutilak, kai aldera garaiz irten ziran: gudontzia, nai ala ta goitik bera ikusi zuten eta beñiz ostaturatuaz poz pozik apaldu ta oieratu ziran.

DONOSTI'RA

ASTEAZKENEKO goizean goiz jeikita, alai ta pozik zeuden gure mutilak, Atxuriko geltokira arin joan naiean; irakaslea, ostatuko etxekoandreari ordanäk eman ala, atera zan, kutunak ondorean zera-mazkila.

Su-gurdian sartu ta Donostiruntz bideratu ziran, Euskal-efi guztian bezela Durango aldean dauden zelai, mendi ta baseñiak ikusi ta Gipuzkoan ematen ez diran, txakoliña damaten eta ibar zakon mendiz ingurutuetan dauden mazti politak ikusirik arituaz, Maltzaga'ra iritxi ziran. Maltzaga'n esker aldeko bidea arturik, Deba'ra juan ziran; bidez Elgoibar (Eibar eta Soraluze bezela) efi guztia izkilu-ola egiña dagola ikusiaz arituta, itxasoratu ziran.


Andik aufera, bide polit bat dago, mendi, zelai ta baso tartean irikia, noizean bein itxas aurean agertzen dana: bide ori iraganaz, eta bitarteko efi txukunak eskefean utziaz, beren uri eder, txukun eta ludi guztian berdiñik ez dun Donosti'ra eldu ziran.

¡Mutilen poza, beren gurasoak Amara'ko geltokian ikusi zituztenean! Ango laztan maitetsu ta malko gosoak!



DONOSTIA

Kal-ataria



Ta afigariena, Gazteizko Endore Jauna ta Lugintz-
-lkastetxeko buru zegon gizon jakintsua, mutilen gu-
raso tartean arkitzea!

Irakasle Jaunari, txandaka guraso ta mutilak bio-
tzez eskerak eman zizkioten.

Ontan, Patxiri bere gurasoakin batean Endore ta
gizon jakintsuak deitu zioten eta maitetsu besarkatu
ondoren, jaun altsu batengana eramán zuten eta berari
mutila aurkeztuaz, Endoreak esan zion: «Ona, emen,
Jauna, zure semetxoa eriotzetik gaizkatu zun Patxi
kutuna!»

Au entzutean, Jaun aiek mutila txit maitetsu besar-
katu zun eta gero malkotsu ta zerurontz begira zion:
«Jaungoiko altsuak zu ta zure guraso doaitsuak onetsi
zaitzatela!»

Geltokitik irtetekoan, Jaun altsuak bere semetxoa
ta Patxi besarkatuak zeuzkala, guztiai esan zien: «Jaun
da mutil maiteak, nere Patxi ta nere semearen izenean,
biarko *Pannier-Fleuri*'ko ostatuan, bazkari bat es-
keintzen dizuet: jafen da afen! guztioak etori zaitzte:
¿naiko al dezute?» — Baiez — besteak erantzutean,
beriz Jaunak zion: «Eskeirik asko ta agur: ¡biar artel!»

Guztiak banakatu ta oñez batzuek eta gurtariñetan
besteak etxeratu ziran: Patxi beriz, Jaun altsuak Gaz-
teiz'tik ekañ zion eta beraren izenean bere gurasoak
artu bear izan zuten gurtarin edertsu ta egokian.

To elygeant, Gasteris Eodore Jams to Luyntis-
 Gasteris Eodore Jams to Luyntis-
 Gasteris Eodore Jams to Luyntis-
 Gasteris Eodore Jams to Luyntis-
 Gasteris Eodore Jams to Luyntis-

Gasteris Eodore Jams to Luyntis-
 Gasteris Eodore Jams to Luyntis-
 Gasteris Eodore Jams to Luyntis-
 Gasteris Eodore Jams to Luyntis-
 Gasteris Eodore Jams to Luyntis-

Gasteris Eodore Jams to Luyntis-
 Gasteris Eodore Jams to Luyntis-
 Gasteris Eodore Jams to Luyntis-
 Gasteris Eodore Jams to Luyntis-
 Gasteris Eodore Jams to Luyntis-

Gasteris Eodore Jams to Luyntis-
 Gasteris Eodore Jams to Luyntis-
 Gasteris Eodore Jams to Luyntis-
 Gasteris Eodore Jams to Luyntis-
 Gasteris Eodore Jams to Luyntis-
 Gasteris Eodore Jams to Luyntis-
 Gasteris Eodore Jams to Luyntis-
 Gasteris Eodore Jams to Luyntis-
 Gasteris Eodore Jams to Luyntis-
 Gasteris Eodore Jams to Luyntis-



ARKIBIDEA

	Ofialdea
Eskeintza	5
Saririk atsegin eta aundiena	7
Pasai'tik Bilbo'ra. Ontziratzean	9
Itxasoan.	11
Bazkalondoan	14
Luf-ikara	17
Ugaldia	21
Bilbo'n	25
Bilbo'tik Gazteiz'era	28
Gazteiz	31
Lugintza.	34
Lugintza-Basoak	36
Lugintza-Lufak	39
Lugintza-Aleak.	43
Lugintza-Jan-edari ta jantziak	46
Lugintza-Gazteiz'tik Lizafa'ra	50
Lugintza-Lizafa'tik Andosila'ra.	53
Lugintza-Andosila'tik Tudela'ra	56
Lugintza-Tudela'tik Iruña'ra.	59
Olkintza-Iruña	62
Olkintza-Iruña'tik Tolosa'ra.	68
Olkintza-Tolosa'n.	72
Olkintza-Tolosa'n.	76
Olkintza-Tolosa'n.	79
Olkintza-Tolosa'n.	84
Olkintza-Tolosa'n.	88
Olkintza-Tolosa'tik Beasain'era	92
Olkintza-Beasain'dik Bilbo'ra	95
Sal-erosketak-Bilbo'n	98
Sal-erosketak-Bilbo'ko ondoreak	101
Sal-erosketak-Bilbo'n	104
Sal-erosketak-Bilbo'n	107
Sal-erosketak-Zintzotasuna	112
Sal-erosketak-Zintzotasuna (Jafaiketa)	116
Donosti'ra	120

ARIBIDEA

187-188

1	Arribidea
2	Arribidea
3	Arribidea
4	Arribidea
5	Arribidea
6	Arribidea
7	Arribidea
8	Arribidea
9	Arribidea
10	Arribidea
11	Arribidea
12	Arribidea
13	Arribidea
14	Arribidea
15	Arribidea
16	Arribidea
17	Arribidea
18	Arribidea
19	Arribidea
20	Arribidea
21	Arribidea
22	Arribidea
23	Arribidea
24	Arribidea
25	Arribidea
26	Arribidea
27	Arribidea
28	Arribidea
29	Arribidea
30	Arribidea
31	Arribidea
32	Arribidea
33	Arribidea
34	Arribidea
35	Arribidea
36	Arribidea
37	Arribidea
38	Arribidea
39	Arribidea
40	Arribidea
41	Arribidea
42	Arribidea
43	Arribidea
44	Arribidea
45	Arribidea
46	Arribidea
47	Arribidea
48	Arribidea
49	Arribidea
50	Arribidea
51	Arribidea
52	Arribidea
53	Arribidea
54	Arribidea
55	Arribidea
56	Arribidea
57	Arribidea
58	Arribidea
59	Arribidea
60	Arribidea
61	Arribidea
62	Arribidea
63	Arribidea
64	Arribidea
65	Arribidea
66	Arribidea
67	Arribidea
68	Arribidea
69	Arribidea
70	Arribidea
71	Arribidea
72	Arribidea
73	Arribidea
74	Arribidea
75	Arribidea
76	Arribidea
77	Arribidea
78	Arribidea
79	Arribidea
80	Arribidea
81	Arribidea
82	Arribidea
83	Arribidea
84	Arribidea
85	Arribidea
86	Arribidea
87	Arribidea
88	Arribidea
89	Arribidea
90	Arribidea
91	Arribidea
92	Arribidea
93	Arribidea
94	Arribidea
95	Arribidea
96	Arribidea
97	Arribidea
98	Arribidea
99	Arribidea
100	Arribidea
101	Arribidea
102	Arribidea
103	Arribidea
104	Arribidea
105	Arribidea
106	Arribidea
107	Arribidea
108	Arribidea
109	Arribidea
110	Arribidea
111	Arribidea
112	Arribidea
113	Arribidea
114	Arribidea
115	Arribidea
116	Arribidea
117	Arribidea
118	Arribidea
119	Arribidea
120	Arribidea



